

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

5440

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 18koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baita Ertzaintzako karrerako funtzionarioek bete beharreko Ikuskapen Eskalako ofizialorde kategorietarako erreserbatutako lanpostuak betetzeko deialdia.

Ertzaintzaren egitura eta gaur egun indarrean dagoen lanpostu-zerrenda ikusita, eta dauden langile-beharrak kontuan hartuta, Ertzaintzako egituran aurrekontu-zuzkidura duten lanpostu hutsak betetzeko deialdia egiten da. Lanpostu horiek izendapen askeko, merezimendu-lehiaketa espezifiko eta merezimendu-lehiaketa orokorreko sistemen bidez beteko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 93. artikuluan eta hurrengoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 9. artikulua Segurtasun Sailburuordetzari esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 125. artikuluan aurreikusitako Mahaiaren 2025eko azaroaren 18ko bilkuran negoziatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ertzaintzako karrerako Ikuskapen Eskalako ofizialorde kategorietarako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak behin betiko betetzeko deialdia onartzea eta argitara ematea. Lanpostu horiek izendapen askez, merezimendu-lehiaketa espezifikoaren bidez eta merezimendu-lehiaketa orokorraren bidez beteko dira, 1. eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Bigarrena.– 1.– Deialdi honen bidez, lanpostu hauek beteko dira:

a) Izendapen askez bete beharreko Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, 2. eranskinean zerrendatzen direnak (C354).

b) Merezimendu-lehiaketa espezifikoaren sistemaren bidez bete beharreko Babes eta Segurtasunerako Unitateko (Eskoltak), Esku Hartzerako Unitateko, Brigada Mugikorreko Unitateko eta Zaintza eta Erreskaterako Unitateko Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, 3. eranskinean zerrendatzen direnak (C355).

c) Merezimendu-lehiaketa espezifikoaren bidez bete beharreko Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, 4. eranskinean zerrendatzen direnak (C356).

d) Merezimendu-lehiaketa orokorraren sistemaren bidez bete beharreko bigarren jarduerako administrazio-egoeran bete daitezkeen Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, 5. eranskinean zerrendatzen direnak (C357).

e) Merezimendu-lehiaketa orokorraren sistemaren bidez bete beharreko Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, 6. eranskinean zerrendatzen direnak (C358).

f) Dagozkion esleipenen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak eta esleipen-proposamena egin arte sortzen direnak, bai eta aipatutako eranskinetan izartxoarekin (*) identifikatzen diren kodeetan hutsik geratzen direnak ere.

2.– Bigarren jarduerako administrazio-egoeran bete daitezkeen eta administrazio-egoera horretan dauden langileek betetzen ez dituzten lanpostuen neurri berean gehituko da 6. eranskinean deitutako lanpostuen kopurua, lanpostuak betetzeko aplikatu beharreko sistemaren arabera.

Hirugarrena.– 1.– Prozedura honetan ematen diren egintza eta xedapen guztiak Gurenet atarian argitaratuko dira, hurrengo atalean aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

2.– Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen bidez, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, behin betiko atxikipenak erabakitzen dituen ebazpena Gurenet atarian noiz jarriko den adieraziz. Iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hasiko dira ebazpen horren aurkako errekurtsoak edo aurkaratzeak aurkezteko epeak.

Laugarrena.– 1.– Hautaketa-prozedura honetako izangaien identifikazioa zenbaki profesionalaren bidez egingo da.

2.– Datu pertsonalen inguruko tratamendu guztiak beteko dituzte datu pertsonalen babesari buruzko araudian xedatutako eskakizunak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa; eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

3.– Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio elektronikoaren eremuan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak onetsitako II. eranskinekoak dira (Segurtasun-neurriak).

Bosgarrena.– Aurreikusi ez den guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 18a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.

1. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko betekizunak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Ertzaintzako karrerako funtzionario guztiek, baldin eta eskainitako lanpostuak betetzeko eskatzen diren baldintza orokorrak eta lanpostu-zerrendan ezarritako betekizunak betetzen badituzte eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 86. artikuluan aurreikusitako eszedentzian badaude. Halaber, zerbitzu aktiboko egoerara itzultzen diren funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, aipatutako testu bateginaren 92.2 artikuluan aurreikusitako moduan.

2.– Era berean, deialdi honetan aurreikusitako prozedurak erabilita zerbitzu aktibora itzuliz, parte hartu ahal izango dute nahitaezko eszedentzian edo beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu aktiboan daudenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 84. artikuluan xedatutakoaren arabera birgaituta daudenek, sei hilabetetik gorako etenaldi irmoan daudenek eta borondatezko gainerako eszedentzian daudenek, baldin eta egoera horietarako ezarritako egonaldia bete badute.

3.– Bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden Ertzaintzako karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, eta ebazpen honen 5. eranskinean zerrendatutako lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu. Era berean, prozedura horren bidez itzuli ahal izango dira lanera bigarren jarduerako administrazio-egoerara itzultzen diren langileak ere.

4.– Deialdi honetan parte hartu beharko dute, eta, lanpostua betetzeko erreserbatuta dagoen kategoriaren arabera, merezimendu-lehiaketa bidez bete daitezkeen lanpostu huts guztiak eskatu beharko dituzte Ertzaintzako karrerako funtzionario hauek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 98. artikuluan eta Ertzaintzako espezialitateei buruzko apirilaren 4ko 57/2023 Dekretuaren 5.3 artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitu edo eman duen eta eskainitako lanpostuetan jarduteko eskatzen den espezialitate-ikastaroa gainditu duten Ertzaintzako karrerako funtzionarioak, ez badute gutxieneko egonaldia bete espezialitate horretan eta ez badaude behin betiko atxikita dagokion ikastaroa espezialitate-betekizuna gisa ezarrita duen lanpostu bati.

Betebehar hori betetzen ez dutenak behin-behinean atxiki ahal izango dira dagokion espezialitatearekin hutsik geratzen diren lanpostuetara, eta ez dute inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

Funtzionario batek espezialitate bat baino gehiago baditu, aurreko apartatuetan ezarritako bete-beharra lortutako azken espezialitateari buruzkoa dela ulertuko da.

Gutxieneko egonaldia zenbatzen hasiko da espezialitate horretarako gordetako lanpostu bati atxikitzen zaionetik, dela behin betiko atxikipenean, dela behin-behineko atxikipenean, dela zerbitzu-eginkizunetan, betiere aldeztatik aurretik espezialitatea lortu badu.

Gutxieneko egonaldia zenbatzeko, kontuan hartuko da espezialitate bereko edo beste espezialitate bateragarri batzuetako lanpostuetan benetan emandako zerbitzu-denbora.

Ondorio horietarako, benetako zerbitzutzat hartzen da zerbitzu aktiboko, bigarren jarduerako, edota seme-alabak edo senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentziako administrazio-egoeretan igarotako denbora, dagokion espezialitateko betekizuna duen lanpostu bati atxikita zein espezialitate-betekizunik gabeko lanpostu bati atxikita, Ertzaintzako espezialitateei buruzko Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Kontaktetan sartuko dira unitate barruko goragoko kategoriako eginkizunak bete diren aldiak, espezialitate-betekizuna ez duten lanpostuei dagozkienak.

b) Lanpostu bati behin-behinean atxikita dauden Ertzaintzako karrerako funtzionarioak. Bete-behar hori betetzen ez dutenak behin-behinean atxikiko zaizkie hutsik geratzen diren lanpostuei, nahitaez, eta ez dute inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

5.– Ezingo dute deialdi honetan parte hartu:

a) Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik eginkizun-gabetze irmoaren administrazio-egoeran daudenak, egoera horretan dauden bitartean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginekoko 140. artikuluan xedatu bezala, lekualdaketarekin zigortu direnak.

c) Interes partikularragatiko borondatezko eszedentzian daudenak, baldin eta egoera horretan ez badute indarrean dagoen araudiak eskatutako gutxienerako epea eman.

d) Lanean gutxienerako egonaldi berezia duen lanpostu baten behin betiko esleipendun izanik hori bete ez dutenak, salbu eta egoera hori organo eskudunaren onespenerarekin lanpostuari uko egitearen ondorio bada, edo lotura eta arrazoi bera duten beste lanpostu batzuk lortzeko bada, edota lanpostua galtzea dakarren barne-sustapenaren bidez beste kategoriatara batera sartu badira, salbu eta, azken kasu horretan, kategoriatara berri lotura eta arrazoi bera duten lanpostu hutsak badaude. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamenduaren 6.4 artikuluan hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, Ertzaintzako espezialitateei buruzko Dekretuaren 5.4 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

e) Merezimendu-lehiaketa bidez behin betiko destinoa lortu dutenak, baldin eta ez badira bi urte igaro funtzionarioak bere azken behin betiko destinoa lortu zuen lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zuen ebazpena eman zenetik; izendapen askeko sistemaren bidez bete beharreko plazak eskatuz parte hartu ahal izango dute soilik.

Muga hori ez zaie aplikatuko gaur egun behin-behinean atxikita daudenei, salbu eta atxikitze modu hori organo eskudunak onartutako lanpostuari uko egitearen ondorio bada.

f) Lortu nahi duten lanpostuari dagokionez, gehieneko egonaldia bete dutenak, lanpostuen zerrendan ezarritakoaren arabera.

Espezialitate baterako erreserbatutako lanpostuetako gehieneko egonaldia zenbatzen hasiko da langilea espezialitate horretarako gordetako lanpostu bati atxikitzen zaionetik, dela behin betiko atxikipenean, dela behin-behinekoko atxikipenean, dela zerbitzu-eginkizunetan, betiere alde aurretik espezialitatea lortu badu.

Gehieneko egonaldia zenbatzeko, kontuan hartuko da espezialitate bereko edo beste espezialitate bateragarri batzuetako lanpostuetan benetan emandako zerbitzu-denbora.

Ondorio horietarako, benetako zerbitzutzat hartzen da zerbitzu aktiboko, bigarren jarduerako, edota seme-alabak edo senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentziako administrazio-egoeretan igarotako denbora, dagokion espezialitateko betekizuna duen lanpostu bati atxikita zein espezialitate-betekizunik gabeko lanpostu bati atxikita, Ertzaintzako espezialitateei buruzko Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzeko, Babes eta Segurtasunerako Unitateari, Esku Hartzerako Unitateari eta Brigada Mugikorrari atxikita dauden eta egonaldi luzeena behar duten lanpostuak aukeratzen direnean, lanpostu bakoitzerako, agente, agente lehen eta ofizialondoko kategorietarako gordetako lanpostuetan egindako lana zenbatuko da.

Kontuan hartuta egitura organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzearen ondorioz lanpostuen identifikazio-kodeak bata bestearen ondorengoak direla, lanpostu berdintzat hartuko dira hornitzeko kategoria eta espezialitate bera eskatzen dutenak, eta lehenengo lanpostuen zerrenda indarrean sartzen denetik aurrera zenbatuko dira, hau da, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Zenbaketan sartuko dira unitate barruko goragoko kategoriako eginkizunak betetako aldiak, gehieneko egonaldia ezarrita duten unitateetako lanpostuei dagozkienak.

Brigada Mugikorraren Unitatearen kasuan, ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko Laguntza Ataleko edo Indartze Brigadako eginkizunetan edo lanpostuetan jardundako aldiak.

Zaintza eta Erreskate Unitatean lanpostua eskatuz gero, gehieneko egonaldia langilea lanpostu horietako bati atxikitzen zaion egunean hasiko da zenbatzen.

6.– Izangaiek osasun-gaitasuna egiaztatu beharko dute Babes eta Segurtasuneko Unitatetik (bizkartzainak), Esku Hartzeko Unitatetik, Brigada Mugikorretik, Lehergailuak Indargabetzeko Unitatetik eta Zaintza eta Erreskate Unitatetik eskuratu nahi dituzten lanpostuei dagokienez. Horretarako, mediku-epaimahaiaren aldeko txostena aurkeztu beharko dute, lanpostuak betetzeko prozedura honetan egin beharreko osasun-azterketaren ondoren, lanpostu bakoitzean dauden arriskuei lotuta.

Egin beharreko osasun-probak eta lanpostu bakoitzaren arriskuei buruzko informazio-fitxak Gurenet atarian argitaratuko dira.

Deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko bi urteetan Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prebentzio Zerbitzuaren osasun-azterketa egina duten pertsona guztiak salbuesita egongo dira azterketa hori egitetik, salbu eta aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera lanpostu hori lortzeko beharrezkoa den osasun-probaren bat jasota ez badago. Kasu horretan, Gurenet atarian argitaratutakoaren arabera, falta diren osasun-probak egin beharko dira. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da mediku-epaimahaiak aldeko txostena ematea lanpostuak betetzeko prozeduran jarraitzeko.

Prozeduran onartuak izan diren eta izangaien osasun-gaitasunaren balorazioaz arduratzen den mediku-epaimahaiaren aldeko txostena egiaztatuta ez duten langileei dei egingo die mediku-epaimahaiak, enpresako posta elektronikoaren bidez, aurreikusita dauden proba fisikoak egin aurretik.

Mediku-epaimahaiak aurkako txostena ematen badu edo edozein arrazoiengatik osasun-azterketa egiteko hitzordura joaten ez bada, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko dira prozeduraren edozein fasetan. Deialdia egin duen organoa da lanpostuak betetzeko prozeduratik kanpo uzteko eskumena duen organoa.

Deialdia egin duen organoak izendatuko ditu mediku-epaimahaiko kideak. Epaimahai hori osatuko dute epaimahaiburu batek, bi epaimahaikidek eta idazkari batek. Hitza izango dute, baina botorik ez. Epaimahai hori zortzigarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera arautuko da, aplikatzekoa den guztian.

Mediku-epaimahaiaren txostenak arrazoitu egin beharko dira hautaketa-prozesutik baztertzeko arrazoiren bat dagoela ikusten denean, eta jarraitzen den prozedurak, nolana ere, eragindako pertsonaren entzunaldi-eskubidea errespetatuko du.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 104.2 artikuluan xedatutakoaren babesean lehentasunezko eskubidea aitortuta duten Ertzaintzako karrerako funtzionarioek deialdi honetan baliatuko dute, behin bakarrik, udalerrri berean dauden eta kategoria berekoak diren lanpostu hutsei dagokienez.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartzeko, interesdunek ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dute eskabidea, non zehaztuko baitira behin betiko betetzeko araubidean eskatutako lanpostuen kodeak eta, bat baino gehiago badira, haien arteko lehentasun-ordena.

2.– Eskabidea bide telematikoz aurkeztu beharko da Segurgunea atariaren bidez, Interneteko helbide honetan sartuta: <https://segurgune.euskadi.eus>

Atarira sartzeko, txartel profesionalean dagoen IPZri lotutako ziurtagiri digitala erabiliko da. Horretarako, Interneterako konexioa eta ziurtagiri digitalen txartel-irakurgailua dituen ekipo bat erabili beharko da, edo, bestela, erabiltzaile-gakoa, pasahitza eta OWA posta elektronikoko aplikazioaren bidez posta korporatibo pertsonalean jasoko den identifikazio-kodea.

Prozedura honetan eskaerak, erreklamazioak edo errekurtsioak aurkezteko aplikazioaren erabiltzaile-eskuliburua langilearen atarian eta polizia-zentroetako giza baliabideen bulegoetan egongo da eskuragarri.

3.– Prozedura honetan berriro sartzeko parte hartzen dutenek ez badute IPZri lotutako ziurtagiri digitalik, eskabidea aurkeztu ahal izango dute Giza Baliabideen Zuzendaritzako Plangintza Alorrean (Kubo eraikina, bigarren solairua, Larrauri Mendotxe bidea 18, Erandio). Horretarako, hitzordua eskatu beharko dute alde aurretik, provisiondepuestos@seg.euskadi.eus postontzian.

4.– Eskabideak aurkezteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko urtarrilaren 26ko 23:59an amaituko da, bi datak barne.

5.– Eskabidea aldatzeko edo prozeduran parte hartzeari uko egiteko izapidea Segurgunea atariaren bidez egingo da, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Bigarren eskaera bat edo gehiago aurkeztuz gero, epearen barruan aurkeztutako azkena baino ez da eraginkorra izango, eta aurreko guztiak baliogabetuta geratuko dira. Epea amaituta aurkezten direnak ere ondoriorik gabe geratuko dira. Era berean, eskabideak aurkezteko epearen barruan atzera egiteak ondoriorik gabe uzten ditu aurkeztu diren eskabide guztiak.

6.– Eskaerak aurkezteko aldia igarotakoan, egindako eskabideak lotesleak izango dira eskaiztaileentzat; hau da, atzera egin ezinekoak.

Hirugarrena.– Parte hartzeko betekizunak eta baloratuko diren merezimenduak egiaztatzea.

1.– Lehen oinarriko 6. zenbakian aurreikusitako osasun-gaitasunari dagokionez izan ezik, administrazioak ofizioz egiaztatuko du parte hartzeko betekizunak eta baloratzeko merezimendu orokorrak betetzen direla, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Aurrekotik salbuetsita dago euskararen ezagutza; kasu horretan, erreferentzia-data 2026ko urtarrilaren 31ra arte atzeratuko da.

2.– Nolanahi ere, eskatutako LPZko titulazioak eta horien indarraldia egiaztatzeko, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatzen dituen datu-baseetan inskribatuta ez dauden betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko dokumentua aurkeztuko zaio Giza Baliabideen Zentroko Burutzari, eskabideak aurkezteko epearen barruan erkatu dezan. Kopia erkatua Giza Baliabideen Zuzendaritzako Plangintza eta Langileriaren Kudeaketa Alorreko Ebaluazio, Horniketa eta Zentroen Arlora bidaliko da.

3.– Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko, kasuen arabera, kontsulta egingo da Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatzen dituen erregistroetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroetan, administrazio publikoen datuen bitartekaritza-plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta jasota badago eskatzailea kontsulta horren kontra dagoela (arrazoiak azalduta) eta tratamendu-jardueraren ardura daukan organoak kontrakotasun hori aintzat hartzen badu. Kontsulta egitearen kontra agertuz gero (arrazoiak emanda), nahitaez aurkeztu beharko dira kontsultaren xede diren jatorrizko dokumentuak.

4.– Langilearen atarian espediente pertsonalari buruzko informazioa dago eskuragarri. Izangaiek akatsak edo omisioak aurkitzen badituzte, eskabideak aurkezteko epearen barruan zuzendu ahal izango dituzte, jakinarazpen baten bidez. Jakinarazpenarekin batera, egiaztagirien kopia erkatua bidaliko da provisiondepuestos@seg.euskadi.eus postontzira.

Oinarri honen 1. apartatuan ezarritako epeetatik kanpo aurkeztutako eskabide edo dokumentazio oro ez da kontuan hartuko prozedura honetan.

5.– Eskainitako lanpostuak betetzeko eskatzen diren espezialitate-ikastaroak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandakoak izan beharko dira, edo, bestela, akademiak baliozkotuak emandakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren hautaketa- eta prestakuntza-erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapen askea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, izendapena egiteko, beharrezkoa izango da bete beharreko lanpostua atxikita dagoen administrazio-unitateko edo organoko titularraren aurretiko txostena.

Bertan, prozeduran onartutako pertsonen arteko egokitasun-proposamen bat egingo da, deialdi honetan aipatzen diren lanpostuak erreserbatzen diren kategoriako kompetentzia profesionalei buruzkoa (Gurenet atarian argitaratuko dira), edo, bestela, deialdia hutsik uztea proposatuko da.

2.– Egokitasun-txostena ematean, gutxienez honako hauek hartuko dira kontuan: hautagaiak prozeduran parte hartzeko betekizunak betetzen dituen, bete nahi den lanpostuaren betekizunak betetzen dituen, goragoko kategorietara izandako igoeren eta betetako lanpostuen historia, azken destinoa eta konfiantzaren osagaia.

3.– Egokitasun-txostenak egiteko epea Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuaren 23. artikuluan aurreikusitakoa da.

Bosgarrena.– Merezimendu-lehiaketa orokorra.

Merezimendu orokorrak balioesteko, Segurtasuneko sailburuaren 2025eko irailaren 8ko Aginduak ezarritako merezimenduen baremoa aplikatuko da. Agindu horren bidez, merezimenduen baremo erkide eta bateratua onartzen da, merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko Ertzaintzako

oinarrizko eskalako agente eta agente lehenaren kategorietako eta ikuskapen-eskalako ofizialordearen eta ofizialaren kategorietako lanpostu hutsak. Agindu hori 2025eko urriaren 28ko Aginduak aldatu zuen.

Seigarrena.– Merezimendu-lehiaketa espezifikoko probak.

1.– Merezimendu-lehiaketa espezifikoaren sistemaren bidez bete beharreko lanpostuei dagokienez, probak gainditu beharko dira, eta gainditzeko ez dituztenak lehiaketatik kanpo geratuko dira lanpostu horiei dagokienez.

2.– Lehiaketa espezifikoan onartutako eta baztertutako pertsonen dagokion baremoan zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu beharko dute prozedurarekin jarraitu ahal izateko, hala ezartzen denean.

Hala ere, proben baremoetan aurreikusi ahal izango da aurreko behin betiko prozeduraren deialditik espezialitate bat egiaztatu dutenak eta espezialitate hori eskatzen duen lanpostu bati aldi baterako atxikita daudenak salbuetsita egongo direla trebetasun eta gaitasun fisikoen probetatik. Kasu horietan, proba fisikoetan amaierako gai kalifikazioa izango dute paragrafo honen lehen tartetikiko egoeretan ez egoteagatik horiek egin behar dituzten izangaiek, ezartzen diren gutxieneko kalifikazioak gainditu ondoren.

2.1.– Merezimendu espezifikoak baloratzeko, proba bat edo batzuk egingo dira. Proba horiek 7. eranskinean eta hurrengoetan agertzen diren edukiei buruzkoak izango dira, eta, aldi berean, hainbat ariketaz osatuta egon ahal izango dira. Proba horiek nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira, edo ez, zehaztutakoaren arabera.

Gainditzat jotzeko izangaiek lortu behar dituzten gehieneko eta gutxieneko puntuazioak edukiak deskribatzen edo agertzen diren eranskinetan adierazten dira.

Probak lanpostuaren eduki funtzionalarekin zerikusia duten trebetasun fisiko edo funtzionalei edo ezagutza teoriko-praktikoei buruzko ariketak izango dira.

Proba bat egitea aurreikusten denean, gehienez 40 puntu emango dira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gainditzat jotzeko, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Beste proba bat egitea aurreikusten den lanpostuetan, proba hori gehienez 20 punturekin baloratu da, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira proba gainditzat emateko.

3. eranskinetik 4.era bitartean, proba funtzional espezifiko berean ebaluatuko diren lanpostuak biltzen dira.

2.2.– Ezagutza-proben gai-zerrendak lantokietako Giza Baliabideen Zentroko Burutzari eskatu ahal izango zaizkio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskabidea egin izana egiaztatu ondoren. Interesdunek USB memoria bat edo antzeko euskarri informatiko bat aurkeztu beharko dute.

2.3.– Proba espezifikoak egin behar diren egunean izangaia aldi baterako ezintasun-egoeran badago, dagokion Osasun Zerbitzu Publikoak emandako baimen medikoa eramango du proba horietara. Baimen horretatik ondorioztatuko da probetan parte hartzeak ez duela eraginik izango osasuna berreskuratzeko prozesuan.

Zazpigarrena.– Lanpostuak behin betiko betetzeko prozedurako esleipen-faseak.

1.– Deialdi honetan aipatzen diren lanpostuen esleipena ondoz ondoko fase preklusiboetan egingo da, ordena honetan:

1.1.– Lehenik, bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden langileek bete ditzaketen lanpostuak esleituko dira, eskaintako lanpostuak betetzeko eskatutako espezializazio-ikastaroa

gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan hartuta, hala badagokio. Lehenengo azpifasean, prozesua gainditu dutenek soilik hartuko dute parte, baldin eta lehentasunezko esleipen-eskubidea aitortu bazaie deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda onartzen duen ebazpenean. Eta bigarren azpifasean, prozesua gainditu duten gainerako izangaiek hartuko dute parte.

1.2.– Bigarrenik, izendapen askeko sistemaren bidez bete beharreko lanpostuak esleituko dira.

1.3.– Hirugarrenik, deialdi honen xede den merezimendu-lehiaketa espezifikoaren bidez bete beharreko lanpostuak esleituko dira, ondoz ondoko fase preklusiboetan, ordena honetan:

1.3.1.– Lehenik, deialdi honen xede diren Babes eta Segurtasunerako Unitateko (Eskoltak), Esku Hartzerako Unitateko, Lehergailuak Indargabetzeko Unitateko, Brigada Mugikorreko Unitateko eta Zaintza eta Erreskaterako Unitateko lanpostuak esleituko dira, eskainitako lanpostuak betetzeko eskatutako espezializazio-ikastaroa gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan hartuta. Lehenengo azpifasean, prozesua gainditu dutenek soilik hartuko dute parte, baldin eta lehentasunezko esleipen-eskubidea aitortu bazaie deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda onartzen duen ebazpenean. Eta bigarren azpifasean, prozesua gainditu duten gainerako izangaiek hartuko dute parte.

Era berean, baldintza horiek betetzen dituzten eta egindako esleipenen ondorioz hutsik gertzen diren lanpostuak esleituko dira.

1.3.2.– Ondoren, lehiaketa espezifikoaren bidez bete beharreko lanpostuak esleituko dira, eskainitako lanpostuak betetzeko eskatzen den espezializazio-ikastaroa gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan hartuta. Lehenengo azpifasean, prozesua gainditu dutenek soilik hartuko dute parte, baldin eta lehentasunezko esleipen-eskubidea aitortu bazaie deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda onartzen duen ebazpenean. Eta bigarren azpifasean, prozesua gainditu duten gainerako izangaiek hartuko dute parte.

Era berean, baldintza horiek betetzen dituzten eta egindako esleipenen ondorioz hutsik gertzen diren lanpostuak esleituko dira.

1.4.– Laugarrenik, merezimendu-lehiaketa orokorraren sistemaren bidez bete beharreko lanpostuak esleituko dira, eskainitako lanpostuak betetzeko eskatutako espezializazio-ikastaroa gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legean jasotako eta deialdi honetan onartu eta baztertuei buruzko ebazpenean aitortutako lehentasun-eskubideak betetz. Lehenengo azpifasean, prozesua gainditu dutenek soilik hartuko dute parte, baldin eta lehentasunezko esleipen-eskubidea aitortu bazaie deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda onartzen duen ebazpenean. Eta bigarren azpifasean, prozesua gainditu duten gainerako izangaiek hartuko dute parte.

Era berean, baldintza horiek betetzen dituzten eta egindako esleipenen ondorioz hutsik gertzen diren lanpostuak esleituko dira.

1.5.– Azkenik, behin-behineko atxikipenean lanposturik esleitu ez zaien Ertzaintzako karrerako funtzionarioei behin-behinean eta nahitaez esleituko zaizkie esleitu gabeko eta merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez bete beharreko lanpostuak, lanpostu-zerrendan adierazitako ordenari jarraituz, eta esleipen horrek ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

2.– Fase batean esleitutako lanpostuak ez dira beteko hurrengo faseetan. Horrela, fase batean lanpostu baten esleipendun gertatzen direnek ezin izango diote uko egin esleitutako lanpostuari, eta ezin izango dute jarraitu deialdiko lanpostuak esleitzeko prozesuan; beraz, ulertuko da uko egiten dietela hurrengo faseetan esleipendun izan daitezkeen lanpostuetarako egin dituzten eskaerei.

3.– Lehiaketa-sistemaren bidez bete beharreko lanpostuei dagokienez, lortutako kalifikazio handienak zehaztuko du lehentasuna, bi faseetan lortutako kalifikazioa batuz, lehiaketa espezifikoaren sistema denean, seigarren oinarriko 2. zenbakiaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

4.– Lehiaketako merezimenduen balorazioan puntuazio handiagoa lortzeak lehentasun-eskubideaz baliatzeko hurrenkera zehaztuko du bi faseak batuta eskubide hori aitortua dutenen kasuan, lehiaketa espezifikoaren sistema denean, seigarren oinarriko 2. zenbakiaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

5.– Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data igarota duten lanpostu bateko dotazioak bete-kizun hori betetzen dutela egiaztatuta duten interesdunei esleituko zaizkie.

Zortzigarrena.– Balorazio-batzordeak.

1.– Lehiaketa baloratzeko, hainbat balorazio-batzorde eratuko dira. Batzorde horiek osatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legean Administrazioako kide anitzeko organoei buruz ezarritakoa beteko da, bai eta inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezialitate-printzipioak ere.

Balorazio-batzordeetako kideak karrerako funtzionarioak edo lan-kontratuko langile finkoak izango dira, deitutako lanpostua atxikita dagoen titulazio-talde berekoak edo goragokoak.

2.– Balorazio-batzorde bat izendatuko da prozedura honetako merezimendu orokorrak baloratzeko, eta eginkizun hauek izango ditu:

a) Prozedura objektiboa dela ziurtatzeko ardura duenez gero, bermatu behar du deialdiaren oinarriak betetzen direla, eta gainera beharrezkoak diren akordioak hartu behar ditu dagokionean arauetan dauden hutsuneei aurre egiteko, eta haiek aplikatzean nabari azaltzen diren kontraesanei erantzun egokia emateko.

b) Merezimendu orokorrak baloratu behar ditu. Horretarako, dagozkion behin-behineko erabakiak hartuko ditu, Gurenet atarian argitaratuko direnak. Interesdunek erreklamazioak egin ditzakete horien kontra, bost egun balioduneko epean, eta batzordeak berak ebatziko ditu erreklamaziook.

c) Puntuaziorik handiena lortu duten izangaiak proposatuko ditu, eta lanpostuak esleitzeko proposamena aurkeztu Segurtasuneko sailburuordeari, deitutako lanpostuen kopuruaren barruan eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera hutsik geratzen diren lanpostuen artean puntuaziorik handiena lortu dutenen alde, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginean aurreikusitako lehentasunezko eskubideak.

3.– Era berean, merezimendu espezifikoak baloratzeko arduratuko diren balorazio-batzordeak izendatuko dira. Batzorde horien erabakiak Gurenet atarian argitaratuko dira, eta horien aurka interesdunek aurkaratzeak aurkeztu ahal izango dituzte bost egun balioduneko epean. Aurkaratutako erabakia eman duen batzordeak berak ebatziko ditu aurkaratzeak.

Balorazio-batzorde horiek proba espezifikoaren ezaugarriak eta zuzentzeko eta baloratzeko irizpideak zehaztuko dituzte. Halaber, ahalik eta esleipen gehien egin ahal izateko, ariketa edo proba gainditzeko baliozko galderen kopurua zehaztu ahal izango dute, bai eta gaindituzat emateko gutxieneko kalifikazioa lortzeko dagokion eten-puntuazioa ere.

Erabaki horiek Gurenet atarian argitaratu beharko dira, ariketak edo probak egin baino zazpi egun natural lehenago, gutxienez.

Merezimendu espezifikoak baloratzeaz arduratzen diren batzordeek lehiaketa espezifikoko kalifikazioak bidaliko dizkiote balorazio-batzorde orokorrari, aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Bost kidek osatuko dituzte batzordeak: bat batzordeburu izango da, eta bestea idazkari. Kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

5.– Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen baten bidez (Gurenet atarian argitaratuko da) izendatuko dira balorazio-batzordeetako kideak eta horien ordezkokoak.

6.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira, balorazio-batzordeetako kideek, organo eskudunari jakinarazita, ez dute esku hartuko; era berean, izangaiek errekusatu ahal izango dituzte.

7.– Balorazio-batzordeen erabakiak bertaratuen gehiengoaren botoekin hartuko dira; eta, berdinketa gertatuz gero, presidente ari denak ebatziko du. Ordea, presidentea edo haren ordezkoa ez badago, adinez nagusia den kidea izango da ebatziko duena.

8.– Balorazio-batzordeak ezin izango dira eratu, ezta jardun ere, kideen erdiak baino gehiago bertaratu ez badira, lehendakaria eta idazkaria barne, eta adituak izendatu ahal izango dituzte, aholkulari gisa jardun dezaten, hitzarekin baina botorik gabe.

9.– Balorazio-batzordeetan parte hartuz gero, legez aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dira.

Bederatzigarrena.– Lanpostuak betetzeko prozeduraren garapena.

1.– Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez (Gurenet atarian argitaratuko da), onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko dira, eta interesdunek erreklamazioak egin eta eskabideetako akatsak zuzendu ahal izango dituzte, hamar egun balioduneko epean, zerrendak atarian argitaratzen direnetik aurrera. Erreklamazio eta zuzenketa horiek onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean ebatziko dira.

Erreklamazioak eta zuzenketa-eskaerak bigarren oinarriko 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko dira.

2.– Gurenet atarian argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpena, bai eta proba espezifikoak egiteko egunak, orduak eta lekuak ere. Proba horietarako deialdia gutxienez zazpi egun natural lehenago egin beharko da.

3.– Izendapen askeko sistemaren bidez beteko diren lanpostuak Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez esleituko dira. Ebazpena interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie, eta prozedura honetan ezarritakoaren arabera erakutsiko da jendaurrean.

Esleipen-ebazpena arrazoitzeko orduan, aukeratutako hautagaiak deialdiko betekizunak eta gainerako zehaztasunak betetzen dituela aipatuko da, bai eta izendapena egiteko eskumena ere; dena dela, hartutako ebazpenaren funtsezko oinarria izango da prozedura behar bezala bideratzea.

4.– Merezimendu-lehiaketaren bidez bete beharreko lanpostuak Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenez esleituko dira, eta ebazpen hori prozedura honetan ezarritakoaren arabera argitaratuko da.

Ebazpena arrazoitzeko, erregelamenduzko arauak eta deialdiaren oinarriak betetzen direla aipatuko da; nolana ere, hartutako ebazpenaren oinarria izango da behar den prozedura betezea eta hautagaien merezimenduen azken balorazioa.

5.– Behin betiko atxikipenek zein egunetatik aurrera izango dituzten ondorioak Segurtasuneko sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez zehaztuko da.

Unitate jakin batzuetan dauden langile-beharrak kontuan hartuta, erabaki ahal izango da behin betiko lanpostuak betetzeko prozedura unitate horietan Ertzaintzaren gainerako unitate eta zerbitzuetan baino lehenago izatea eraginkorra eta gauzatzea.

6.– Behin betiko esleipenak borondatezkoak izango dira, eta ez dute kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortuko lantokia aldatzeagatik.

Hamargarrena.– Izendapen askeko sistemaren bidez behin betiko betetako lanpostutik kentzea.

1.– Izendapen askeko sistemaren bidez bete beharreko lanpostuen behin betiko atxikipenean esleipendun gertatzen diren funtzionarioak lanpostutik kendu ahal izango dira diskrezionalki, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 103.5 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Erregelamenduaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Izendapen askeko lanpostutik kendutako langileak behin-behinean atxikiko zaizkio, kargua utzi eta hurrengo egunetik aurrera, beste lanpostu bati, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuaren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hamaikagarrena.– Merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez behin betiko hornitutako lanpostuari uko ezin egitea eta lanpostutik mugiaraztea.

1.– Merezimendu-lehiaketaren bidez lanpostu baten behin betiko atxikipenean esleipendun suertatzen diren funtzionarioek ezin izango diete uko egin lanpostu horiei, eta ezin izango dute parte hartu behin betiko azken destinoa lortu duten lehiaketa-prozeduraren deialdia ebatzi eta hurrengo bi urteetan deitzen diren lehiaketetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 97.2 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamenduaren 18.2 artikuluan ezarritako salbuespenarekin.

2.– Lanpostu bat lehiaketa-prozeduraren bidez lortzen duten funtzionarioak lanpostutik kendu ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 103.4 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hamabigarrena.– Deialdia ebazteko epea.

Deialdi hau ebazteko epea bederatzi hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, hargatik eragotzi gabe epe hori luzatu ahal izatea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2025eko abenduaren 19a, ostirala

2. ERANSKINA
IZENDAPEN ASKEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udalerrria	Lang. kop.	Horn. sist.	Espez.	Titul.	HE	Horn. behar. kop.	Derrig. data iraug.
10303	Zibersegurtasuna Koordinatzeke burutza	Zibersegurtasuneko ofizialordea	Ofizialordea	Erandio	3	IA	IKI		2	3	
20045	Kabinete Teknikoa	Zibersegurtasuneko Euskal Zentroko Bitartekoa	Ofizialordea	Erandio	1	IA			1	*	
20324	Arabako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	1	IA			1	1	1
20334	Intelligentziako Arabako Lurralde Bulegoa	Taldeburua	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	1	IA	IKI		2	*	
20409	Bizkaiko Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Erandio	1	IA			1	*	
20417	Bizkaiko Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Erandio	1	IA	IKI		2	1	
20434	Intelligentziako Bizkaiko Lurralde Bulegoa	Taldeburua	Ofizialordea	Erandio	2	IA	IKI		2	2	
20509	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Oiartzun	2	IA			1	2	2
20510	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Oiartzun	1	IA	OIKI2/IKI		2	1	
20534	Intelligentziako Gipuzkoako Lurralde Bulegoa	Taldeburua	Ofizialordea	Oiartzun	2	IA	IKI		2	2	1
40817	Babes eta Segurtasun Unitatea	Segurtasuna	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	2	IA			1	2	2
80109	Intelligentzia Bulego Nagusiaren Burutza	Taldeburua	Ofizialordea	Erandio	7	IA	IKI		2	5	

2025eko abenduaren 19a, ostirala

3. ERANSKINA

BABES ETA SEGURTASUNEKO, ESKU-HARTZEKO, BRIGADA MUGIKORRAREN ETA ZAINZA ETA ERRESKATEKO UNITATEETAN
BERARIAZKO MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN SISTEMAREN BIDEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udalerrria	Lang. kop.	Horn. sist.	Espez.	Titul.	HE	Horn. behar. kop.	Derrig. data iraug.	Proba espez.
40115	Brigada Mugikorraren Unitatea	BMko ofizialordea	Ofizialordea	Iurreta	16	ML	BM Ik./Esku-H. Ik.		1	11	9	7
40704	Esku-hartze Unitatea	Esku-hartzea	Ofizialordea	Bernedo	2	ML	Esku-Hartze Ik.		1	2		8
40804	Babes eta Segurtasun Unitatea	Eskolta	Ofizialordea	Bernedo	6	ML	Eskol./Esku-H. Ik.		1	2	1	9
40909	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Uretako Zaintza eta Erreskate Taldeko burua	Ofizialordea	Iurreta	3	ML		101001 eta 101003	1	2		10
40925	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Operadoreen burua	Ofizialordea	Iurreta	1	ML		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	1	1		11
40933	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Mendiko Zaintza eta Erreskate Taldeko burua	Ofizialordea	Iurreta	3	ML		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	1	2	1	12

2025eko abenduaren 19a, ostirala

4. ERANSKINA

BERARIAZKO MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN SISTEMAREN BIDEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udalerna	Lang. kop.	Horn. sist.	Espez.	Titul.	HE	Horn. behar. kop.	Derrig. data iraug.	Proba espez.
20219	AKZ Nagusia	Bizkaiko LAZLZko operadorea	Ofizialordea	Bilbao	5	ML			1	5	4	13
20708	Bizkaiko Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofizialordea	Erandio	5	ML			1	4	3	13
20809	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofizialordea	Oiartzun	5	ML			1	5	4	13
42002	Laguntza Takikoko Burutza Nagusia	Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Iurreta	1	ML			1	1		14
43003	Erakundeen Segurtasuneko Burutza Nagusia	Idazkaritza Teknikoa	Ofizialordea	Bernedo	1	ML			1	*		14
30513	Polizia Zientifikoko Burutza	Koord. Zientifikoko Ataleko burua	Ofizialordea	Erandio	1	ML	OIK12/IKI		2	1		15
30530	Polizia Zientifikoko Burutza	LBiko Ataleko burua	Ofizialordea	Erandio	1	ML	OIK12/IKI		2	1		15
30540	Polizia Zientifikoko Burutza	Pertsonak identifikatzeko Ataleko burua	Ofizialordea	Erandio	1	ML	OIK12/IKI		2	*		15
30550	Polizia Zientifikoko Burutza	Dokumentoskopia eta Grafistikako Ataleko burua	Ofizialordea	Erandio	1	ML	OIK12/IKI		2	1		15
30560	Polizia Zientifikoko Burutza	Balistika eta Tresna Aztarnen Ataleko burua	Ofizialordea	Erandio	1	ML	OIK12/IKI		2	1		15
70305	Idazkaritza Nagusia	Taldeburua	Ofizialordea	Erandio	3	ML			1	1		16
70306	Idazkaritza Nagusia	Taldeburua	Ofizialordea	Erandio	4	ML	OIK12/IKI		2	0		16
60106	Barne Arazoetako Burutza	Ofizialordea	Ofizialordea	Erandio	4	ML	OIK12/IKI		2	1	1	17
20043	Kabinete Teknikoa	Kabinete Teknikoko ofizialordea	Ofizialordea	Erandio	1	ML			1	*		18
20344	Ikerketa Kriminaleko Arabako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	4	ML	OIK12/IKI		2	4	1	19
20444	Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Ofizialordea	Erandio	4	ML	OIK12/IKI		2	2	1	19
20544	Ikerketa Kriminaleko Gipuzkoako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Ofizialordea	Oiartzun	4	ML	OIK12/IKI		2	3	2	19
30436	Ikerketa Kriminal eta P.Jko Burutza	Adituen Taldeko burua	Ofizialordea	Erandio	6	ML	OIK12/IKI		2	6		19
30603	Joko eta Ikuskizun Unitatea	Taldeburua	Ofizialordea	Bilbao	2	ML			1	*		20
70404	Koordinazio eta Lankidetz Unitatea	Koordinazio Operatibo eta Teknikoa	Ofizialordea	Erandio	2	ML	OIK12/IKI		2	1		21
70409	Koordinazio eta Lankidetz Unitatea	Taldeburua	Ofizialordea	Erandio	2	ML	OIK12/IKI		2	2	1	21
70410	Koordinazio eta Lankidetz Unitatea	Polizia Koordinatuzeko Taldeko burua	Ofizialordea	Erandio	5	ML	OIK12/IKI		2	2	1	21

2025eko abenduaren 19a, ostirala

5. ERANSKINA

MEREZIMENDU-LEHIAKETA OROKORRAREN SISTEMAREN BIDEZ BETE BEHARREKO BIGARREN JARDUERAKO LANPOSTUAK

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udaleria	Lang. kop.	2. jard.	Especialitatea	Titul.	HE	Horn. behar. kop.	Derrig. data irautgia
22015	Gasteizko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz / Iruña Oka	16	1			1	*	

2025eko abenduaren 19a, ostirala

6. ERANSKINA

MEREZIMENDU-LEHIAKETA OROKORRAREN SISTEMAREN BIDEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udalerrria	Lang. kop.	2. jard.	Especialitatea	Titul.	HE	Horn. behar. kop.	Derrig. data iraugita
21204	Arabako Trafikoko LU	Trafikoa	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	5		Bide-Seg.		1	*	
21207	Arabako Trafikoko LU	Ikerketa	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	5		OIK12/IKI		2	5	3
21304	Bizkaiko Trafikoko LU	Trafikoa	Ofizialordea	Erandio	5		Bide-Seg.		1	3	3
21307	Bizkaiko Trafikoko LU	Ikerketa	Ofizialordea	Erandio	5		OIK12/IKI		2	3	2
21404	Gipuzkoako Trafikoko LU	Trafikoa	Ofizialordea	Oiartzun	5		Bide-Seg.		1	3	2
21407	Gipuzkoako Trafikoko LU	Ikerketa	Ofizialordea	Oiartzun	5		OIK12/IKI		2	5	4
21418	Gipuzkoako Trafikoko LU	Trafikoa	Ofizialordea	Zumarraga	5		Bide-Seg.		1	5	4
21504	Miñoien Atala	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz	5				1	4	3
21804	Guardiako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Laguardia	5				1	5	1
21810	Guardiako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Laguardia	1	1	OIK12/IKI		2	1	1
21904	Laudioko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Laudio	5				1	3	1
21910	Laudioko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Laudio	1		OIK12/IKI		2	*	
22015	Gasteizko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz / Iruña Oka	16	1			1	15	10
22019	Gasteizko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Vitoria-Gasteiz / Iruña Oka	8		OIK12/IKI		2	8	8
22104	Balmasedako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Balmaseda	5				1	3	
22110	Balmasedako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Balmaseda	1		OIK12/IKI		2	*	
22205	Ibaizabalgo Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Basauri	10				1	9	7
22208	Ibaizabalgo Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Basauri	6		OIK12/IKI		2	5	4
22305	Bilboko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Bilbao	16				1	6	2
22308	Bilboko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Bilbao	8		OIK12/IKI		2	6	3
22404	Durango Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Durango	5				1	2	2
22407	Durango Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Durango	6		OIK12/IKI		2	5	1
22504	Erandioko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Erandio	5				1	3	2
22507	Erandioko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Erandio	6		OIK12/IKI		2	6	3
22704	Gernika-Lumoko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Gernika-Lumo	5				1	5	4

2025eko abenduaren 19a, ostirala

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udalerrria	Lang. kop.	2. jard.	Especialitatea	Titul.	HE	Hom. behar. kop.	Derrig. data iraugita
22707	Gernika-Lumoko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Gernika-Lumo	6		OIK12/IKI		2	5	2
22805	Getxoko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Getxo	5				1	5	3
22808	Getxoko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Getxo	6		OIK12/IKI		2	5	2
22905	Muskizko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Muskiz	5				1	1	1
22908	Muskizko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Muskiz	6		OIK12/IKI		2	5	2
23004	Ondarroako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Ondarroa	5				1	4	4
23010	Ondarroako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Ondarroa	1		OIK12/IKI		2	1	1
23104	Sestaoko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Sestao	5				1	3	2
23107	Sestaoko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Sestao	8		OIK12/IKI		2	8	7
23515	Deba-Urolako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Bergara	10				1	10	9
23518	Deba-Urolako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Bergara	6		OIK12/IKI		2	5	2
23605	Donostiako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Donostia	10				1	9	7
23608	Donostiako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Donostia	8		OIK12/IKI		2	6	5
23704	Eibariko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Eibar	5				1	4	3
23707	Eibariko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Eibar	6		OIK12/IKI		2	5	2
23805	Hernaniko Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Hernani	5				1	3	3
23808	Hernaniko Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Hernani	6		OIK12/IKI		2	6	3
23904	Irungo Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Irun	5				1	2	2
23907	Irungo Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Irun	8		OIK12/IKI		2	8	3
24005	Errenteriako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Errenteria	5				1	4	3
24008	Errenteriako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Errenteria	6		OIK12/IKI		2	6	2
24104	Oriako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Tolosa	10				1	9	8
24110	Oriako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Tolosa	6		OIK12/IKI		2	5	2
24204	Urola Kostako Ertzain-etxea	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Zarautz	10				1	10	9
24210	Urola Kostako Ertzain-etxea	Ikerketa	Ofizialordea	Zarautz	6		OIK12/IKI		2	6	3
40318	Lehergailuak indargabetzeko Unitatea	Arlo Teknikoko burua	Ikuskapen Eskala	Iurreta	1		Indarg. eta GNEBK Ik.		1	1	
40319	Lehergailuak indargabetzeko Unitatea	Ekintzetarako k	Ofizialordea	Iurreta	3		Indarg. eta GNEBK Ik.		1	2	
40603	Ertzainor Unitatea	Ertzainorekoa	Ofizialordea	Bernedo	1		Txakur-Gidarien Ik.		1	*	

2025eko abenduaren 19a, ostirala

Kodea	Unitatea	Lanpostuaren izendapena	Kategoria	Udalerrria	Lang. kop.	2. jard.	Espezialitatea	Titul.	HE	Hom. behar. kop.	Derrig. data iraugita
40814	Babes eta Segurtasun Unitatea	Segurtasuna	Ofizialordea	Bernedo	1				1	*	
40916	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Ofizialorde pilotua	Ofizialordea	Iurreta	4		C Pilotua eta 100015	100002 eta 100015	1	2	2

7. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBAK: 40115 KODEKO LANPOSTUA, BRIGADA MUGIKORRAREN UNITATEKOA

Behin betiko hornitzeko aurreko prozeduraren deialditik espezialitatea egiaztatu dutenak eta espezialitatea eskatzen duen lanpostu bati aldi baterako atxikita daudenak salbuetsita egongo dira trebetasun eta gaitasun fisikoen probetatik. Kasu horietan, proba fisiko horiek gai kalifikazioa izango dute, proba horiek egin behar dituzten izangaiak ezartzen diren gutxienezko kalifikazioak gainditu ondoren, paragrafo honen lehen tartetik egoeretan ez egoteagatik. Egoera horietarako, proba horiek nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

PROBAREN ARIKETAK

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean baino ez dira egingo; horretarako, kirol-ekipo egokia aurkeztu beharko dute.

Proba honetan 4 ariketa egingo dira, bi ataletan banatuta.

Lehenengo atalean indarra erakusteko 3 ariketa egingo dira. Atal hau osatzen duten hiru ariketetako bakoitzak 0 eta 10 puntu arteko balorazioa izango du. Atal hau gainditzeko: ezingo da proba bat baino gehiago ez gainditu, eta 3 ariketen puntuen baturak 18 puntu edo gehiago izan beharko du. Baldintza horietako bat ez betetzeak lehenengo atala ez gainditzea ekarriko du.

Bigarren atalean erresistentzia aerobikoko ariketa bakarra egin beharko da. Ariketa hau 0 eta 10 puntu artean baloratuko da. Ariketa honetan gutxienez 5 puntu lortzen ez badira, ez da ariketa gaindituko.

Gaitasun fisikoko proba gainditzeko, beharrezkoa izango da proba osatzen duten bi (2) ataletako bakoitza gainditzea.

GAITASUN FISIKOKO PROBAN SARTUTAKO ARIKETAK

1.– Sentadilla.

Helburua: beheko gorputz-adarrei dagokien muskulaturaren indarra eta erresistentzia.

Deskribapena: izangaiak barra sorbalden gainean jarriko du horizontalean, barrari heltzeko eskuak eta hatzak jarrita. Barra euskarrietatik atera ondoren, atzera egingo du ariketa hasteko posizioraino, eta oinak sorbalden antzeko albo-tartearekin jarriko ditu. Posizioan dagoela, tente dagoela eta belak blokeatuta dituela, epailearen eginkizunak betetzen dituen pertsonak ariketaren hasieraren seinalea emango du. Seinalea hartzean, izangaiak belak tolestu eta gorputza jaitsi beharko du, zangoen goiko aldean, aldakako artikulazioan, belak goiko aldearen parean geratu arte (90 °). Mugimendua amaitzen da pertsona berriro zutitzen denean hasierako posizioraino.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da etenaldirik egin errepikapenen artean. Ariketa izangaiak lehen sentadilla egiten duenean hasten da, eta azken sentadillarekin amaitzen da, hasierako posizioan.

Altxatu beharreko pisua, guztira, 80 kilokoa izango da gizonen kasuan, eta 56 kilokoa emakumeen kasuan.

Taula honetan ageri da puntuazio-baremoa:

Gizonezkoen errepikapenak	Nota	Emakumezkoen errepikapenak
12	10	12
11	9	11
10	8,5	10
9	8	9
8	7,5	8
7	7	7
6	6	6
5	5	5
4	4	4
3	3	3
2	2	2
1	1	1
0	0	0



2.– Banku-presioa.


Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: banku baten gainean ahoz gora jarrita, hankak tolestuta, oinak lurrian eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago jarrita (erpuruaren ermamia proba egiteko erabiltzen den barraren marra gorriak ukitzera iritsiko da), besoak sakon flexionatzea bularra barrarekin ukitu arte, eta, ondoren, osorik luzatzea, besoa altxaldi bakoitzean blokeatu arte.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak lurretik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldituko da eta ordura arte behar bezala egindako errepikapenak idatziko dira.

Guztira gizonezkoek 45 kilo altxatu behar dituzte, eta emakumezkoek, ordea, 29 kilo.

Neurketa: ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren altxaldiak (flexio sakona bularra ukitu arte eta besoak erabat luzatzea).



Banku-presioaren baremoa.

Gizonezkoak 45 Kg.	Nota	Emakumezkoak 29 Kg.
Errepikapenak		Errepikapenak
45	10	42
44	9	41
43	8,50	40
42	8,25	39
41	8	38
40	7,75	37
39	7,50	36
38	7,25	35
37	7	34
36	6,75	33
35	6,50	32
34	6,25	31
33	6	30
32	5,75	29
31	5,50	28
30	5,25	27
29	5	26
28	4,75	25
27	4,50	24
26	4,25	23
25	4	22
24	3,75	21
23	3,50	20
22	3,25	19
21	3	18

Gizonezkoak 45 Kg.	Nota	Emakumezkoak 29 Kg.
Errepikapenak		Errepikapenak
20	2,75	17
19	2,50	16
18	2,25	15
17	2	14
16	1,75	13
15	1,50	12
14	1,25	11
13	1	10
12	0,75	9
11	0,50	8
10	0,25	7
9	0	6

3.– Beso-trakzioa barra finkoan (gizonezkoak).

Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: barra finko batetik zintzilik, esku-ahurrak aurrerantz dituela eta sorbalden zabalera baino pixka bat gehiago urrunduta, izangaiak besoak tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte. Ondoren, gorputza hasierako posizioraino jaitsiko da, 1 edo 2 segundoko geldialdia egingo du, eta, ondoren, gora egingo du berriro. Ariketa hasi ondoren, ezin izango da atsedetik hartu, errepikapenen arteko nahitaezko geldialdietarako izan ezik.

Burua, une oro, enborra luzatuta egongo da. Kokotsak barra ukitzen badu burua atzera botata, hau da, lepoa luzatuta, altxaldia baliogabetzat joko da.

Ez da onartuko ez kulunkarik ez konpentsazio-mugimendurik. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez lotuta. Listoia botatzen bada, amaitutzat emango da proba, eta behar bezala egindako errepikapenen kopurua idatziko da.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketaren tokian eskainiko da).

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Izangaiak behar bezala egindako altxaldien kopurua idatziko da, aurreko jarraibideen arabera.



Barra finkoko beso-trakzioaren baremoa (gizonezkoak).

Gizonezkoak	
Errepikapenak	Nota
15	10
14	9,5
13	9
12	8,5
11	8
10	7
9	6
8	5
7	4
6	3
5	2
4	1
3	0

Barra finkoko beso-flexio jarraitua (emakumezkoak).

Helburua: goiko gorputz-adarretako gihar-indarraren erresistentzia.


Deskribapena: izangaia banku batera igo eta barra finko batera helduko da, esku-ahurrak eta hatzak bere buruari begira dituela (begiratu beheko irudia) eta sorbalden zabaleran. Izangaiak besoak erabat tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsa barraren gainetik pasatu arte, ukitu gabe. Oinak bankuarekin kontaktuan egoteari uzten diotenetik aurrera, posizio horretan egon beharko du ahalik eta denbora luzeenean.

Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez lotuta.

Burua, une oro, enborra luzatuta egongo da. Ezingo da kokotsa ukitu barrarekin.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketaren tokian eskainiko da).

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Kronometroa martxan jarriko da oinek bankuarekin kontaktua galtzen dutenean. Proba amaituko da kokotsa barra horizontalaren mailatik behera jaisten denean edo listoia eraisten denean.



Barra finkoko beso-flexio jarraituaren baremoa (emakumezkoak).

Emakumezkoak	
Denbora	Nota
1'35"	10
1'34"9-1'29"	9,5
1'28"9-1'23"	9
1'22"9-1'17"	8,5
1'16"9-1'11"	8
1'10"9-1'05"	7,5
1'04"9-59"	7
58"9- 54"	6,5
53"9- 49"	6
48"9- 44"	5,5
43"9- 39"	5
38"9-34	4,5
33"9-29"	4
28"9-25"	3
24"9-22	2
21"9-18	1
17"9	0

4.– Course-Navette erresistentzia-testa.

Helburua: erresistentzia aerobiko maximoa ebaluatzea. Proba honen bidez, izangaiaren erresistentzia-maila ebaluatu nahi da, intentsitate handiagoko edo txikiagoko esfortzuak denbora luzeagoan edo laburragoan egiteko.

Deskribapena: izangaia marra baten atzean jarriko da, eta soinu-seinale batekin hasiko da proba. Korrika egingo du kontrako aldean dagoen marra zapaldu arte (20 metrora), eta soinu-seinale bat entzun arte itxarongo du lasterka jarraitzeko. Egoera hori test osoan zehar errepikatuko da.

Lasterketa-erritmoa audio-gailu baten bidez erregulatuko da. Gailu horrek soinu bat igorriko du tarte erregularretan.

Neurketa: izangaiaren batek honakoa eginez gero:

- Audio-gailuak adierazitako unean ez zapaltzea marra.
- Soinu-seinaleak markatzen duen erritmoaren aurretik joatea.
- Noranzkoa aldatzea marra zapaldu gabe.
- Biraketa zirkularrak egitea, marraren gainean pibotatu beharrean.

Lehenengo abisua emango zaio. Aipatutako arrazoiren batengatik bigarren abisuren bat ematen bada, proba amaitutzat emango da, eta osatutako azken aldia idatziz jasoko da.

Course-Navette-ren baremoa.

Gizonezkoak		Emakumezkoak
Aldia	Nota	Aldia
13 ½	10	12 ½
13	9	12
12 ½	8	11 ½
12	7,5	11
11 ½	7	10 ½
11	6,5	10
10 ½	6	9 ½
10	5,5	9
9 ½	5	8 ½
9 edo gutxiago	0	8 edo gutxiago

8. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBAK: 40704 KODEKO LANPOSTUA, ESKU-HARTZE UNITATEKOA

Idatzizko bi proba egingo dira: teorikoa eta praktikoa. Bi probak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

1. proba.– Proba teorikoa.

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzaille bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

1.– 014 jarraibidea: Polizia-jarduerak gaixotasun psikiko iraunkorrak dituzten pertsonekin.

2.– 021 jarraibidea: Ertzaintzako kideek suzko armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.

3.– 042 jarraibidea: Banakako kamerak erabiltzea Ertzaintzan – «bodycams».

4.– 065 jarraibidea: Bereizgarririk gabeko autoen erabilera.

5.– 070 jarraibidea: Ertzaintzaren irudi korporatiboa.

6.– 073 jarraibidea: Armen, munizioaren eta istiluen kontrako gainerako elementuen erabilera eta kontrola arautzea.

7.– 006 zerbitzu-gidalerroa: Identifikazioak eta gorputz-araketak egitea.

8.– 007 bis zerbitzu-gidalerroa: Gertakari kritikoetan jarduteko prozedura.

9.– 020 zerbitzu-gidalerroa: Atxiloketaren jardunbide materiala.

10.– 053 zerbitzu-gidalerroa: Sarrerak eta erregistroak.

11.– 001 gidalerro operatiboa, Polizia Kriminaleko Alorrarena: Banketxeetako lapurreta-alarmaren prozedura.

12.– 008 gidalerro operatiboa, Polizia Kriminaleko Alorrarena: Prebentzioa egiteko eta berehalako erantzuna emateko zerbitzuaren jarduera-prozedura (PRI-BIZKOR), BMUko langileentzat.

13.– 011 gidalerro operatiboa, Polizia Kriminaleko Alorrarena. Kontrol-gailu elektronikoa (TASER) erabiltzea.

14.– 001 gidalerro operatiboa, Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiarena. Berroziko Polizia Zentroaren barne-agindua.

15.– 001 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitatearen eginkizunak.

16.– 002 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: «Stand-by» egoera.

17.– 003 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitateko uniformetasuna.

19.– 004 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Material lehergarriaren erabilera.

19.– 005 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Dokumentazioaren tratamendua.

20.– 006 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Armen eta munizioen kontrola.

21.– 007 pauta operatiboa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitatearen eraikineko eta ibilgailuetako segurtasuna.

22.– 001 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Mobilizazioa Esku-hartze Unitateak planifikaturik gabeko gertaeretan.

23.– 002 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Lan bertikaletako segurtasuna BBT Esku-hartze Unitatean.

24.– 003 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Helikopteroko lana.

25.– 004 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Su-armak erabiltzeko prozedura BBT Esku-hartze Unitatean.

26.– 006 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitateko tiratzaileen arlorako lana.

27.– 007 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitatea higiezinetan sartzea.

28.– 008 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: TASER kontrol-gailu elektronikoaren erabilera.

29.– 009 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Prebentzio neurriak COVID-19aren aurrean

30.– 010 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Bahitu edo atxikitako errugabeekin izandako istiluak.

31.– 011 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitatearen prozedura BABES 0 gertaeraren aurrean.

32.– 012 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: BBT Esku-hartze Unitateak landa-ingurunean lan egitea.

33.– 013 pauta teknikoa, BBT Esku-hartze Unitatearena: Ezkutuko lana eta kaleko atxiloketak BBT Esku-hartze Unitatean.

2. proba.– Esku-hartze unitateko jarduera profesionalari buruzko ariketa praktikoa.

Proban gehienez 20 puntu lortu ahaliko dira. Proba gainditzeko, 10 puntu edo gehiago lortu beharko dira. Idatzizko proba bat da, eta, bertan, izangaiak bi operatibo planifikatu eta gauzatu beharko ditu, unitatearen eskumen-esparruko kasu praktikoen aurrean.

9. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBAK: 40805 KODEKO LANPOSTUA, BABES ETA SEGURTASUN UNITATEKOAK

Behin betiko hornitzeko aurreko prozeduraren deialditik espezialitatea egiaztatu dutenak eta espezialitatea eskatzen duen lanpostu bati aldi baterako atxikita daudenak salbuetsita egongo dira trebetasun eta gaitasun fisikoen probetatik. Kasu horietan, proba fisiko horiek gai kalifikazioa izango dute, proba horiek egin behar dituzten izangaiek ezartzen diren gutxieneko kalifikazioak gainditu ondoren, paragrafo honen lehen tartekiko egoeretan ez egoteagatik. Egoera horietarako, proba horiek nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean soilik egingo dira; horretarako, kirol-talde egokiarekin aurkeztu beharko dira.

Bi proba ez baztertzailak egingo dira. Lehenengo proba teorikoa izango da; bigarrena, ordea, gaitasun fisikokoa eta trebetasun teknikoetakoa.

Lehenengo proba.– Proba teorikoa.

Hurrengo gai-zerrendei buruzko ezagutza-proba teorikoetan gehienez 20 puntu lortu ahalko dira. Proba gainditzeko, 10 puntu edo gehiago lortu beharko dira.

40804 LANPOSTURAKO GAIK

1.– 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearena.

2.– 318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

3.– 006 jarraibidea: ibilgune publikoetan biltzeko eta manifestatzeko eskubideak erabiltzeko babesa.

4.– 006 zerbitzu-gidalerroa: identifikazioak eta gorputz araketak egitea.

5.– 006 gidalerro operatiboa: Ertzaintzako Babes eta Segurtasun Unitateko kideek suzko armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.

6.– 020 zerbitzu-gidalerroa: atxilotetaren jardunbide materiala.

7.– 012 zerbitzu-gidalerroa: Lehergailuak Indargabetzeko Unitatearekin jarduteko protokoloa.

8.– 077 jarraibidea: Ertzaintzak gorroto-delituen aurrean jarduteko prozedura.

9.– 003 gidalerro operatiboa: Babes eta Segurtasun Unitatearen Irizpide Operatiboak.

10.– 004 gidalerro operatiboa, komunikazioei buruzkoa, Babes eta Segurtasun Unitatearena.

11.– 044 zerbitzu-gidalerroa, 03. berrik., Ertzaintzaren Burutzarena: El/GIren biktimak babestea.

12.– 038 zerbitzu-gidalerroa, 04. berrik., Ertzaintzaren Burutzarena: mehatxatutako pertsonak babesteko zerbitzua.

13.– 001 gidalerro operatiboa, 01. berrik., Berroziko Polizia Zentroaren barne-agindua, Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiarena.

40805 ETA 40818 LANPOSTUETARAKO GAIAK

1.– 006 jarraibidea: ibilgune publikoetan biltzeko eta manifestatzeko eskubideak erabiltzeko babesari buruzkoa.

2.– 006 zerbitzu-gidalerroa: identifikazioak eta gorputz araketak egitea.

3.– 006 gidalerro operatiboa: Ertzaintzako Babes eta Segurtasun Unitateko kideek suzko armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.

4.– 020 zerbitzu-gidalerroa: atxiloketaren jardunbide materiala.

5.– 012 zerbitzu-gidalerroa: Lehergailuak Indargabetzeko Unitatearekin jarduteko protokoloa.

6.– 003 gidalerro operatiboa: Babes eta Segurtasun Unitatearen Irizpide Operatiboak.

7.– 004 gidalerro operatiboa, komunikazioei buruzkoa, Babes eta Segurtasun Unitatearena.

8.– 038 zerbitzu-gidalerroa, 04. berrik., Ertzaintzaren Burutzarena: mehatxatutako pertsonak babesteko zerbitzua.

9.– 001 gidalerro operatiboa, 01. berrik., Berroziko Polizia Zentroaren barne-agindua, Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiarena,

Bigarren proba.– Gaitasun fisikoa eta trebetasun teknikoak.

Hiru lanpostuetarako proba komuna da.

Nahitaezkoa eta baztertzaila da. Proba honen kalifikazioa gehienez 40 puntukoa izango da, ariketa eta test bakoitzean lortutako kalifikazioak batuta, eta nahitaezkoa izango da 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

Gaitasun fisikoaren probaren kalifikazioa 28 puntukoa izango da gehienez, eta indartze-testa (gehienez 23,40 puntu) eta erresistentzia-testa (gehienez 4,60 puntu) izango ditu.

Nahitaezkoa eta baztertzaila den trebetasun teknikoen probaren kalifikazioa 12 puntukoa izango da gehienez, eta gainditzeko gutxienez 6 puntu lortu beharko dira. Tiro-ariketa bat egin beharko da.

Gaitasun fisikoko probak ariketa hauek izango ditu:

INDARTZE-TESTA

Indartze-testean 0tik 23,40 puntura bitartean emango dira, eta zazpi ariketa izango ditu. Ariketa bakoitzak 30 segundo iraungo ditu (bankuko pressak ez du gehieneko denborarik izango), eta ariketen artean 30 segundo izango dituzte errekuperatzeko. Ahalik eta errepikapen gehien egin beharko dira.

Azken puntuazioa ariketa bakoitzean lortutako partzialen batura izango da. Egin beharreko ariketak (gauzatzea eta ebaluazioa).

GIZONEZKOAK

Ordena	Ariketa	Gehieneko puntuazioa
1	Bankuko pressa	4,70
2	Aurreko-alboko muskulatura abdominala	1,55
3	Besoen trakzioa barra finkoan	4,70
4	Beheko muskulatura abdominala	1,55
5	Besoen flexioa ahoz behera etzanda	4,70
6	Estentsio orokorra	3,10
7	Trizeps frantsesa	3,10

Guztira	23,40 puntu
---------	-------------

EMAKUMEZKOAK

Ordena	Ariketa	Gehieneko puntuazioa
1	Bankuko pressa	4,70
2	Aurreko-alboko muskulatura abdominala	1,55
3	Besoen flexioa ahoz behera etzanda	4,70
4	Beheko abdominala	1,55
5	Trizeps frantsesa	3,10
6	Estentsio orokorra	3,10
7	Besoen flexioa barra finkoan	3,10

Guztira	23,40 puntu
---------	-------------

GIZONEZKOAK


BANKUKO PRESSA

Deskribapena: Banku baten gainean ahoz gora jarrita, hankak tolestuta, oinak zoruan finkatuta eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago (erpuaren ermamia proba egiteko erabiltzen den barrako marra gorriak ukitzera iritsiko da), besoen flexio sakona bularra barrarekin ukitu arte, eta, ondoren, estentsio osoa, besoa blokeatu arte altxaldi bakoitzean.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak zorutik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldiarazi eta ordura arte zuzen egindako errepikapenak idatziko dira.

Gizonezkoek 40 kilo altxatuko dituzte.

Neurketa: Ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren altxaldiak (flexio sakona bularra ukitu arte eta besoen estentsio osoa).





Errepikapenak	Balioa puntutan
21 baino gutxiago	0
22 – 29	0,80
30 – 35	1,20
36 – 39	1,60
40 – 41	2,35
42 – 43	3,10
44	3,85
45	4,70

AURREKO-ALBOKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Aurreko-alboko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ahoz gora jarrita, hankak elkarrekin; eta eskuak elkarrekin gurutzatuta garondoan eta oinak elkarrekin. Aldaka eta belaua 90 °-ko flexioan. Flexioa egingo da, enborra ezkerretara biratuz, eskuineko ukondoak ezkerreko belaua ukituz, hasierako posiziora itzuliz eta ezkerreko ukondoak eskuineko belaua ukituz. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketa egiteko ezarritako denboran.




Errepikapenak	Balioa puntutan
25 baino gutxiago	0
25	0,15
26	0,30
27	0,45
28	0,60
29	0,75
30	0,90
31	1,05
32	1,20
33	1,35
33 baino gehiago	1,55

BESOEN TRAKZIOA BARRA FINKOAN

Bizkarraldeko giharren eta goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Barra finko batetik zintzilik, ahoz gora eusten eta eskuak sorbalden zabaleran, izangaiak besoak flexionatuko ditu eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte. Ondoren, gorputza hasierako posizioraino jaitsiko da (besoak estentsioan eta hankak gurutzatuta eta 90 ° inguruko angeluan flexionatuta), eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko da.

Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta zorutik 1,50 m-ko altueran.




Errepikapenak	Balioa puntutan
9 baino gutxiago	0
9	0,80
10	1,20
11	1,60
12	1,95
13	2,35
14	3,10
15	3,85
15 baino gehiago	4,70

BEHEKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Beheko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia

Ahoz gora etzanda, hankak elkarrekin eta eskuak garondoan gurutzatuta, enborra zoruan finkatuta, hankak luzatuta (belaunen estentsio osoa eta oinazpia flexionatuta), zorua ukitu gabe 20 cm-ko altueran. Hankak txandaka altxatuko ditugu, eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko dugu.

Ez da onartuko beheko gorputz-adarra zorurekin kontaktuan egotea. Gorputz-adarra zorutik 20 cm-ra arte goratu beharko da. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren oinen aurrean, 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta zorutik 20 cm-ko altueran.





Errepikapenak	Balioa puntutan
60 baino gutxiago	0
61 – 70	0,35
71 - 80	0,75
81 – 90	1,15
90 baino gehiago	1,55

BESOEN FLEXIOA AHOZ BEHERA ETZANDA

Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Ahoz behera etzanda, ahurrak haien artean sorbalden adinako zabalerarekin zoruan finkatuta. Oinak elkarrekin eta hankak eta enborrak estentsio osoz jarrita. Izangaiak besoak sakon flexionatu beharko ditu, zorua kokotsarekin ukitu arte. Mugimendua amaitutakoan, izangaiak ukondoaren estentsio osoa egin beharko du. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.



Errepikapenak	Balioa puntutan
27 baino gutxiago	0
27	0,35
28	0,50
29	0,65
30	0,80
31	0,95
32	1,05
33	1,20
34	1,35
35	1,60
36	2,35
37	2,70
38	3,10
39	3,45
40	3,85
40 baino gehiago	4,70

ESTENTSIO OROKORREKO PROBA

Muskulatura hedatzailearen indar-erresistentzia.

Hasieran kokoriko posizioan, hankak tolestuta. Besoak enborraren aurrean eta hanken artean. Izangaiak jauzi bat egin beharko du, besoak eta hankak airean luzatuz. Jauziak irauten duen bitartean, oinek zoruko ahur baten altuera gainditu beharko dute. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu beharko du, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.



Errepikapenak	Balioa puntutan
15 baino gutxiago	0
15	0,40
16	0,70
17	1,00
18	1,30
19	1,60
20	1,90
21	2,10
22	2,40
23	2,70
23 baino gehiago	3,10

TRIZEPS FRANTSESA

Trizepsaren giharren indar hedatzailearen erresistentzia neurtzea

Ahoz gora jarrita, hankak elkartuta, orpoak 30 cm-ko garaierako banku suediar batean jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko garaierako beste banku batean jarrita, sorbalden zabaleraren arabera, besoen flexioa egingo da, besoaren eta besaurrearen artean 90 °-ko angelua lortu arte. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu behar du, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).



Errepikapenak	Balioa puntutan
27 baino gutxiago	0
27	0,20
28	0,40
29	0,60
30	0,80
31	1,00
32	1,20
33	1,40
34	1,60
35	1,80
36	2,00
37	2,20
38	2,40
39	2,60
40	2,80
40 baino gehiago	3,10

EMAKUMEZKOAK


BANKUKO PRESSA

Deskribapena: Banku baten gainean ahoz gora jarrita, hankak tolestuta, oinak lurrean finkatuta eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago (erpuaren ermamia proba egiteko erabiltzen den barrako marra gorriak ukitzera iritsiko da), besoen flexio sakona bularra barrarekin ukitu arte, eta, ondoren, estentsio osoa, besoa blokeatu arte altxaldi bakoitzean.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak zorutik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldiarazi eta ordura arte zuzen egindako errepikapenak idatziko dira.

Emakumezkoek 30 kilo altxatuko dituzte.

Neurketa: Ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren altxaldiak (flexio sakona bularra ukitu arte eta besoen estentsio osoa).




Errepikapenak	Balioa puntutan
11 baino gutxiago	0
12 – 19	0,80
20 – 25	1,20
26 – 29	1,60
30 – 31	2,35
32 – 33	3,10
34	3,85
35	4,70

AURREKO-ALBOKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Aurreko-alboko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia

Ahoz gora jarrita, hankak elkarrekin; eta eskuak elkarrekin gurutzatuta garondoan eta oinak elkarrekin. Aldaka eta belauna 90° -ko flexioan. Flexioa egingo da, enborra ezkerretara biratuz, eskuineko ukondoak ezkerreko belauna ukituz, hasierako posiziora itzuliz eta ezkerreko ukondoak eskuineko belauna ukituz. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).




Errepikapenak	Balioa puntutan
23 baino gutxiago	0
23	0,15
24	0,30
25	0,45
26	0,60
27	0,75
28	0,90
29	1,05
30	1,20
31	1,35
31 baino gehiago	1,55

BESOEN FLEXIOA AHOZ BEHERA ETZANDA

Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia

Ahoz behera etzanda, ahurrak haien artean sorbalden adinako zabalerarekin zoruan finkatuta. Belaunak elkarrekin eta zorua gainean jarrita, eta hankak eta enborra estentsio osoan jarrita. Izangaiak besoak sakon flexionatu beharko ditu, zorua kokotsarekin ukitu arte. Mugimendua amaitutakoan, izangaiak ukondoaren estentsio osoa egin beharko du. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.



Errepikapenak	Balioa puntutan
27 baino gutxiago	0
27	0,35
28	0,50
29	0,65
30	0,80
31	0,95
32	1,05
33	1,20
34	1,35
35	1,60
36	2,35
37	2,70
38	3,10
39	3,45
40	3,85
40 baino gehiago	4,70

BEHEKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Beheko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ahoz gora etzanda, hankak elkarrekin eta eskuak garondoan gurutzatuta, enborra zoruan finkatuta, hankak luzatuta (belaunen erabateko estentsioa eta oinazpia flexionatuta), lurra ukitu gabe 20 cm-ko altueran. Hankak txandaka altxatuko ditugu, eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko dugu, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.

Ez da onartuko beheko gorputz-adarra zorurekin kontaktuan egotea. Gorputz-adarra zorutik 20 cm-ra arte goratu beharko da. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren oinen aurrean, 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta zorutik 20 cm-ko altueran.




Errepikapenak	Balioa puntutan
56 baino gutxiago	0
56 - 64	0,35
65 - 74	0,75
75 - 84	1,15
85 baino gehiago	1,55

TRIZEPS FRANTSESA

Trizepsaren giharren indar hedatzailearen erresistentzia neurtzea.

Ahoz gora jarrita, hankak elkartuta, orpoak zoruan jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko garaierako banku batean jarrita, sorbalden zabalaren arabera, besoen flexioa egingo da, besoaren eta besurrearen artean 90 °-ko angelua lortu arte. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu behar du, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).




Errepikapenak	Balioa puntutan
27 baino gutxiago	0
27	0,20
28	0,40
29	0,60
30	0,80
31	1,00
32	1,20
33	1,40
34	1,60
35	1,80
36	2,00
37	2,20
38	2,40
39	2,60
40	2,80
40 baino gehiago	3,10

ESTENTSIO OROKORRA

Muskulatura hedatzailearen indar-erresistentzia

Hasieran kokoriko posizioan, hankak tolestuta. Besoak enberraren aurrean eta hanken artean. Izangaiak jauzi bat egin beharko du, besoak eta hankak airean luzatuz. Jauziak irauten duen bitartean, oinek zoruko ahur baten altuera gainditu beharko dute. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu beharko du, ariketak egiteko ezarritako denboran, 30 sg, hain zuzen ere.



Errepikapenak	Balioa puntutan
14 baino gutxiago	0
14	0,40
15	0,70
16	1,00
17	1,30
18	1,60
19	1,90
20	2,10
21	2,40
22	2,70
22 baino gehiago	3,10


BESOEN FLEXIOA BARRA FINKOAN

Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Izangaia bankura igoko da, eta barra finko bati helduko dio, ahoz gora eusten eta eskuak sorbalden zabaleran, izangaiak besoak flexionatuko ditu osorik eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte, ukitu gabe. Oinak bankuarekin kontaktuan egoteari uzten diotenetik aurrera, posizio horretan egon beharko du ahalik eta denbora luzeenean. Proba amaituko da kokotsa barra horizontalaren mailatik behera jaisten denean.

Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta lurretik 1,50 cm-ko altueran.

Ezingo da kokotsa barrarekin ukitu.



Posizioari eusteko denbora	Balioa puntutan
25 sg. baino gutxiago	0
25 sg. – 35 sg.	0,40
36 sg. – 45 sg.	0,80
46 sg. – 55 sg.	1,20
56 sg. – 1 m. 05 sg.	1,60
1 m. 06 sg. – 1 m. 15 sg.	1,95
1 m. 16 sg. – 1 m. 25 sg.	2,35
1 m. 26 sg. – 1 m. 35 sg.	2,70
1 m. 36 sg. – 1 m. 45 sg.	3,10
1 m. 46 sg. – 1 m. 55 sg.	3,85
1 m. 55 sg. baino gehiago	4,70

ERRESISTENTZIA-TESTA

Erresistentzia-testaren balorazioan 0tik 4,60 puntura emango dira.

Course Navette edo Leger-Lambert-en testa.

Probarako jarraibideak:

Joan-etorriko ibilbide batean 20 m-ko distantzian, ahalik eta denbora luzeenean korrika egitean datza. Pixkanaka handitzen doan abiaduran, minutu bakoitzeko gutxi gorabehera (1 minutu). Ibilbide bakoitzeko abiadura soinu-zinta edo kasete baten bidez erregulatuko da, eta soinu bat igorriko du tarte erregularretan.

Joan-etorriko ibilbideak egingo dira, harik eta oposizioak zintak adierazten duen unean lerroa zapaldu ezin duen arte.


Izangaiak irteera-marraren atzetik jarri behar dira, eta haien artean metro bateko tarte utzi behar da. Kasetea martxan jarri ondoren, irteera-seinalea entzutean, aurreko marra zapaldu arte mugitu behar dira, hurrengo seinaleak jotzen duen unean edo lehenago. Marra hori 20 m-ra dago. Ezinbestekoa izango da soinu-zintak markatutako erritmoari jarraitzea, eta ezin izango da hurrengo ibilbidea egitera irten seinalea entzun arte.

Gutxienez oin batek marra zapaldu beharko du ibilbide bakoitzean.

Izangai bakoitza bere karrera-marrari eusten saiatuko da, beste izangaiei trabarik egin gabe.

Hautagairen batek ez badu marra zapaltzen soinu-zintak adierazitako denboran, aldez aurretik abisatuko zaio, eta bigarren abisuren bat gertatuz gero, kanporatu egin ahal izango da.

Izangaiak behar bezala bete duen azken palierra idatziko da, alderdi hauek kontuan hartuta: - soinu-zintak, marrara iristeko unea markatzen duten tarte erregularretako seinaleez gain, tarte desberdinetan adieraziko du bete den palierra; - utzi aurretik izangaiak lortu duen azken palierra izango da probaren emaitza.



GIZONEZKOAK

Betetako aldia	Balioa puntutan
9.00 baino gutxiago	0.00
9.00	1,00
9.50	1,60
10.00	2,20
10.50	2,80
11.00	3,40
11.50	4,00
12.00	4,60

EMAKUMEZKOAK

Betetako aldia	Balioa puntutan
8.00 baino gutxiago	0.00
8.00	1,00
8.50	1,60
9.00	2,20
9.50	2,80
10.00	3,40
10.50	4,00
11.00	4,60

TREBETASUN TEKNIKOKO PROBA

Bi lanpostuetarako proba komuna da, nahitaezkoa eta baztertzaila. Proba honen kalifikazioa gehienez 12 puntukoa izango da, eta gainditzeko gutxienez 6 puntu lortu beharko dira. Tiro-ariketa bat egingo da, non bi jomugaren kontrako eraginkortasuna eta ariketa egiteko azkartasuna baloratuko diren.

Jarraian, pistolarekin tiro egiteko trebetasun teknikoko proba deskribatzen da, bai eta haren puntuazio-baremoak ere. Proba hori arauzko hornidura-armaz egingo da.

Gauzatzea.

Tiratzailearen irizpidearen arabera, 3 kargagailutan banatutako 30 kartutxorekin abiatuko da. Errekamaran munizio-kartutxo bat eta katua ekintza bikoitzean dituen armarekin hasiko da. Ariketan zehar, tiratzaileak bere irizpidearen arabera aldatuko du kargagailua.

A jomuga.

Ariketa 25 metroko distantzian hasiko da. Abiapuntuko posizioa zutik izango da, eskuak gorputzaren aurrean elkartuta eta arma zorroan, eta, lehen adierazi bezala, errekamaran munizio-kartutxo bat duela. Agintzen diotenean, tiratzaileak lurlean etzandako posizioa hartuko du, 2 tiro egiteko.

Ondoren, 20 metroko marraraino joango da, belauna lurlean deritzon posizioa hartuko du, eta 2 tiro egingo ditu.

Aurrera egingo du 15 metroko marraraino berriz, eta berriz ere 2 tiro egingo ditu zutik jarrita. Distantzia berean, lurlean etzandako posizioa hartuko du eta 2 tiro egingo ditu. Posizioari eutsiz, lurlean eskuinera biratuko da erabat, eta 2 tiro egingo ditu. Ezkerretara bira osoa egingo du berriro, eta 2 tiro egingo ditu.

Berriz ere 10 metroko marraraino hurbilduko da, 2 tiro egiteko zutik, 2 tiro belauniko eta 2 tiro posizio erdiabdominalean.

B jomuga.

Azkenik, 7 metroko distantziaraino egingo da aurrera, eta 12 tiro egingo dira zutik, «B» jomugaren aurka.

Puntuazioa eta penalizazioak:

– Proba egiteko denbora. Puntuazioen balioaren % 100 lortzeko, ez dira 90 segundo baino gehiago erabili behar. Hortik gorako 10 segundoko, 0,5 puntu kenduko dira. Ariketa 110 segundotan baino gehiago amaitzen badu tiratzaileak, baliogabetzat joko da.

– 0,5 puntuko penalizazioa, ez dagokion jomugara egindako tiro bakoitzeko.

– Izangai bakoitzak gehienez bi aldiz egin “dezake” ariketa, eta lortutako puntuaziorik onena hartuko da baliozkotzat.

A jomuga (18 tiro).

«A» gisa markatutako eremura iritsi behar dira inpaktuak.

Puntuazioa eranskin honen amaierako laukian zehaztuta dator.

Ez dago penalizaziorik eremutik kanpo egindako inpaktuengatik.

B jomuga (12 tiro).

0,15 puntu, «B» gisa markatutako eremura iristen den inpaktu bakoitzeko.

Ez dago penalizaziorik eremutik kanpo egindako inpaktuengatik.

Penalizazioak.

Segurtasunaren akats arinak. Tiratzailearen segurtasunerako berehalako arriskurik sorrarazten ez dutenak dira. Halako bat eginez gero, ohartarazpen bat egingo da. Hiru akats arin metatuz gero, ariketa baliogabea izango da:

– Aurreratze-mugimenduetan, arma eskuan mantenduko da, jomuga-eremurantz zuzenduta eta lurrarekiko paraleloan; segurtasun-baldintza hori ez bada betetzen, 1. ohartarazpena egingo da.

– Aurreratze-mugimendu bakoitzean, posizio bakoitzetik irten baino lehen aktibatu egin behar da segurtagailua ekinga bikoitzera edo aseguratuta posiziora; segurtasun-baldintza hori ez bada betetzen, 2. ohartarazpena egingo da.

– Posizioak aldatzean, tiratzaileak arma jomugarantz zuzentzen jarraitu behar du; segurtasun-baldintza hori ez bada betetzen, 3. ohartarazpena egingo da.

– Segurtasunaren akats larriak. Instrukzio-epaileek balizko istripu-arriskua egon dela uste dutenean gertatuko dira, adibidez, ustekabeko edo nahi gabeko tiro bat ariketa egin bitartean. Halakoetan, ariketa baliogabetzat joko da. Izangaiak azken aukera bat izango du ariketa tekniko egiteko.

Garapena.

– Tiratzaile batek huts egiten badu tiro-posizioak egitean, bai eta ezarritako tiro-distantziak egitean ere, ariketa errepikatu beharko du, eta lehenengo proba egindakotzat hartuko da, baina baliogabea.

– Posizio batean tiro bat gehiago egiten badu, horren berri emango litzateke eta idatziz jasoko litzateke, baina tiratzaileak ariketa egiten jarraituko luke, eta kasu horretan azken emaitzatik 0,5 puntu kenduko litzaioke.

– Ariketa egiten ari den bitartean, armak huts egiten badu edo geldiarazi egiten bada, kronometroa gelditu egingo da, eta berriz ere martxan jarri ahal izango da, tiratzaileak arazoa konpondu eta hurrengo tiroa egiten duenean.

– Munizioak eragindako arazoengatik kartutxo batek ez badu kolpekatzen, inpaktua tiratzailearen aldekoa dela idatziko da.

Tiratzaile bakoitzak behar duena.

– Plastikozko giza siluetako 2 jomuga (A jomuga eta B jomuga); eta horietako bakoitzean dagozkien inpaktu-eremuak markatzen dira. Argazkia eta jomugaren neurriak erantsi dira.

– 9 mm-ko kalibreko munizioa, blindatua, eta 30 kartutxo.

– Koltxoneta bat, posizio erdiabdominala hartu behar denerako.

– 2 koltxoneta etzanda egoteko posizioetarako.

Ariketan erabiliko diren pistola zorroa zein kargagailu zorroak agenteak duen zuzkidurakoak izango dira.

A jomugako puntuazio laukia.

Inpaktuak	Puntuazioa
1	0,55
2	1,10
3	1,65
4	2,20
5	2,75
6	3,30
7	3,85
8	4,40
9	4,95
10	5,50
11	6,05
12	6,60
13	7,20
14	7,80
15	8,40
16	9,00
17	9,60
18	10,20

10. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 40909 KODEKO LANPOSTUA, ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEKOAK (URETAKOAK)

Proba teoriko-praktiko bat egingo da, nahitaezkoa eta baztertzaila. Izangaiek probako ariketaren bat egiten ez badute, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Puntuazio hori proba osatzen duten ariketetan lortutakoen batura izango da.

Proba fisikoei dagokienez, esleitutako balio guztiak gizonentzat dira; emakumeek % 20ko zuzenketa-faktorea izango dute, denborak luzatzerakoan, igeriketako ariketa praktikoan.

Proba egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Sakonera ertaineko urpekari profesionalaren agiria.

Indarrean dagoen urpeko ekintzen liburuxka.

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean baino ez dira egingo; horretarako, kirol-ekipo egokia dutela joan beharko dira probak egitera.

ARIKETA TEORIKOA

Gehieneko puntuazioa 10 puntu izango da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Ariketa hau baztertzaila da.

Test motako azterketa bat egin beharko da. Bertan, izangaiak honako gai-zerrendako gaiei buruz dituen ezagutza teknikoak baloratuko dira:

– Urpekaritza profesionalaren eskuliburua. Sakonera ertaina.

– Urpekaritzari buruzko 2020ko Errege Dekretua

– Nautikako eskuliburua.

– Itsas arloko legeria:

– Kostaldee buruzko Legea:

II. titulua. Itsasertzaren mugakide diren lurren jabetza mugatzea itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko arrazoiengatik.

II. kapitulua, IV. kapitulua.

III. titulua. Itsas-lehorreko jabari publikoa erabiltzea.

IV. kapitulua.

IV. titulua. Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilerari buruzko ekonomia- eta finantza-arabidea

II. kapitulua, III. kapitulua.

– Itsas Nabigazioari buruzko uztailaren 24ko 14/2024 Legea:

I. titulua. Nabigazioaren administrazio-antolamendua.

I. kapitulua, II. kapitulua, III. Kapitulua.

II. titulua. Nabigazio-ibilgailuak.

I. kapitulua, II. kapitulua, III. Kapitulua.

III. titulua. Nabigazio-subjektuak.

III. kapitulua.

VI. titulua. Nabigazio-istripuak.

I. kapitulua, III. kapitulua.

– Itsasoko Segurtasunaren, nabigazioaren eta itsasoan giza bizitzaren baldintzei buruzko erregelamendua.

– Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak.

3. puntua. Uretan.

12. puntua. Ingurumenaren kutsadura.

13. puntua. Eguraldi kaskarra (METEO).

17. puntua. Urtegiak.

IGERIKETA-ARIKETA PRAKTIKOA

Neoprenozko jantzia daraman izangaiak, hondartzatik, 800 metro korrika egin beharko du, eta, ondoren, itsasoan 250 metrora dagoen buia batera igeri egin eta itsasertzera itzuli beharko du, denbora jakin batean ariketa amaitzeko. Izangaiak txanoa, igeriketa-betaurrekoak eta neoprenozko jantzia baino ezin izango ditu erabili.

Denbora/Puntuaren baremoa:

– 11'00"ra arte = 10

– 11'01" - 11'30" = 9

– 11'31" - 12'00" = 8

– 12'01" - 12'30" = 7

– 12'31" - 13'00" = 6

– 13'01" - 13'30" = 5

– 13'30" baino gehiago = 0

URPEKO ARIKETA PRAKTIKOA

Zirkuitu bat egingo da itsasoan. Zirkuitu horretan, titulazioarekin bat datozen urpeko proba batzuk egingo dira sakontasunari eta ezagutzei dagokienez. Izangaiari azaldu egingo zaizkio eta denbora jakin batean egin beharko ditu. Ariketa hau baztertzaila da.

Denbora/Puntuaren baremoa:

- 10'00"ra arte = 10
- 10'01" - 10'30" = 9
- 10'31" - 11'00" = 8
- 11'01" - 11'30" = 7
- 11'31" - 12'00" = 6
- 12'01" - 12'30" = 5
- 12'30" baino gehiago = kanporatzea dakar.

ONTZIAK ETA KABUIERIA MANEIATZEKO ARIKETA

Ariketa hau baztertzaila da. Gehienez 10 puntu emango dira, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko. Honako jarduera edo zeregin hauek egin beharko dira:

- Ontzia amarralekutik desatrakatea.
- Maniobratzea eta portutik irtetea aparailu batekin ainguratutako buia bat jaso behar den eremu bateraino nabigatzeko.
- Aparailua jaso eta biribilkatu ondoren, beste ontzi bateraino (Itsas Lagun) nabigatzea
- Beste ontzi horren albo-alboan amarratzea eta mugitzen daudela aparailua ematea.
- Askatzea eta portura itzultzea.
- Portura iritsitakoan, ontzia adierazitako pantalanean atrakatzea eta amarratzea.
- 18'00" baino gehiago luzatzeak kanporatzea dakar.
- Itsas Lagun delako ontzian bi buia jartzea, kaian lan egiteko egokia izango den altueran, eta klabu batez eta kote batez lotzea.
- Lastegi bat egitea.

2025eko abenduaren 19a, ostirala

Ariketa honen balorazioa honako item hauen arabera egingo da:

Itemak	Bai/Ez	Oharrak
Ontzia amarralekutik desatrakatzea		
Maniobratzea eta portutik irtetea aparailu batekin ainguratutako buia bat jaso behar den eremu bateraino nabigatzeko		
Aparailua jaso eta biribilkatu ondoren, beste ontzi bateraino (Itsas Lagun) nabigatzea		
Beste ontzi horren albo-alboan amarratzea eta mugitzen daudela aparailua ematea		
Askatzea eta portura itzultzea		
Portura iritsitakoan, ontzia adierazitako pantalanean atrakatzea eta amarratzea.		
Itsas Lagun delako ontzian bi buia jartzea, kaian lan egiteko egokia izango den altueran, eta klabu batez eta kote batez lotzea		
Lastegi bat egitea		
18 minutu baino gehiago luzatzeak kanporatzea ekarriko du		

11. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 40925 KODEKO LANPOSTUA, ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEKOAK
(AERONAUTIKAKOAK)

Proba teoriko bat eta praktiko bat egingo dira, nahitaezkoak eta baztertzailak. Izangaiek proba edo ariketaren bat egiten ez badute, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Proba teorikoan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Proba praktikoan gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Puntuazio hori proba horietako bakoitza osatzen duten zati edo ariketetan lortutakoen batura izango da.

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean baino ez dira egingo; horretarako, kirol-ekipo egokia dutela joan beharko dira probak egitera.

PROBA TEORIKOA

Proba teorikoan gehienez 20 puntu lor daitezke, eta gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu behar dira.

Test motako azterketa bat egin beharko da. Bertan, izangaiek honako gai-zerrendako gaiei buruz dituen ezagutza teknikoak baloratuko dira:

1.– Helikopteroarekin lan egiteko prozeduren oinarrizko eskuliburua.

2.– Helikopteroako operadorearen oinarrizko eskuliburua (heligarabiaren erreskatea eta oinarriak eta larrialdiak).

3.– Euskadiko Babes Zibileko Planaren testu bategina (LABI), 2015eko urtarrilaren 23koa.

Eranskina. Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI). Euskadiko Babes Zibileko Plana. 2015eko urtarrilaren 23ko testu bategina.

– Hitzaurrea.

– Atariko idazpurua.

1.– Irismena.

2.– Eginkizunak.

3.– Lege-esparrua.

4.– Terminoen glosarioa.

– II. idazpurua. Baliabideak eta bitartekoak zehaztea.

– IV. idazpurua Zuzendaritza eta koordinazio arau orokorrak.

– V. idazpurua. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilaren Antolaketa Orokorra.

4.– Larrialdiak Kudeatzeko Legea. 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa.

– II. kapitulua.

– III. kapitulua.

1. atala. Antolaketa eta eskumenak.

9tik 14ra arteko artikulua.

5. atala. Sorospena.

32tik 35era arteko artikulua.

– IV. kapitulua. Zorigaiztokoak ez diren larrialdien kudeaketa.

38tik 40ra arteko artikulua.

42. artikulua.

– V. kapitulua. Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak.

50. artikulua.

5.– Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak: 2023. urteko edizioa.

– 2. puntua. Mendia.

– 3. puntua. Uretan.

– 12. puntua. Ingurumenaren kutsadura.

– 13.2. puntua. Eguraldi kaskarra (Meteo) Gorabehera meteorologiko kaltegarriak kudeatzea.

– 19. puntua. Biktima askoko intzidentek (IMV).

6.– Europako Bizkortze Kontseiluaren bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko gidaliburua. (Bizitzak salbatzen dituzten sistemak (11-13 or.), Helduentzako oinarriko bizi-euskarria (13-16 or.) eta Lehen sorospenak (39-44 or.)

7.– 92 jarraibidea: UAS.

PROBA PRAKTIKOA

Proba fisikoei dagokienez, esleitutako balio guztiak gizonentzat dira; emakumeek % 20ko zuzenketa-faktorea izango dute, errepikapenak murriztuko dituzte banku pressa ariketetan, abdomeneko ariketetan eta bankuko iraupen-proba probetan.

Lau ariketa fisiko izango ditu, eta hegaldiko proba ere gaitu beharko da. Gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, guztira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gaituzteko.

1.– Ariketa fisikoak.

Indarreko lau ariketa dira. (Gehienez 10 puntu guztira). Horietako bakoitzari 2,5 puntu emango zaizkio gehienez.

Hona hemen ariketa horiek:

– Bankuko pressa.

Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: ahoz gora jarrita, banku baten gainean, hankak tolestuta, oinak lurrian eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago jarrita (erpuaren ermamia barraren zati leun eta zimurrekin kontaktuan egon beharko da, proba egiteko erabiltzen den barraren marka gorriak ukinez –1. mugimendua–), besoak sakon flexionatzea bularra barrarekin ukite arte (2. mugimendua) eta ondoren osorik luzatzea, besoa altxaldi bakoitzean blokeatu arte (3. mugimendua). Ariketa 35 kilogramorekin egingo da gizonezkoentzat, eta 25 kilogramorekin, emakumezkoentzat, barraren pisua 20 kilogramokoa dela kontuan hartuta.

Neurketa: saialdi bat onartuko da.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak lurretik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietakoren bat betetzen ez bada, proba gelditu egingo da, eta behar bezala egin ez diren altxaldiak ez dira zenbatuko (makurdura sakona bularra ukite arte eta besoak erabat luzatu arte, ordura arte behar bezala egindako errepikapenak idatziko dira).

Bankuko pressaren baremoa

Gizonezkoak, 35 kg	
Errepikapenak	Eraitza
30	2.5
29	2.25
28	2
27	1.75
26	1.5
25	1.25
24	1
23	0.75
22	0.5
21	0.25
< 21	0

– Beso-trakzioa barra finkoan (gizonezkoak) / Beso-flexio jarraitua barra finkoan (emakumezkoak).

Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: barra finko batetik zintzilik, esku-ahurrak aurrerantz dituela eta sorbalden zabalera baino pixka bat gehiago bereizita, izangaiak besoak tolestuko ditu, eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte. Ondoren, gorputza hasierako posizioraino jaitsiko du, eta 1 «–2»-ko geldialdia egingo du, eta, ondoren, beste altxaldi bat egingo du.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da atsedetik hartu, errepikapenen arteko nahitaezko geldialdietarako izan ezik. Burua, une oro, enborrharen luzapenean egongo da. Kokotsak barra ukitzen badu burua atzera botata, hau da, lepoa luzatuta, altxaldia baliogabetzat joko da. Ez da onartuko ez kulunkarik ez konpentsazio-mugimendurik. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita. Listoia botatzen bada, amaitutzat emango da proba, eta behar bezala egindako errepikapenen kopurua idatziko da. Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketaren tokian eskainiko da). Neurketa: saialdi bat onartuko da. Izangaiak behar bezala egindako altxaldien kopurua idatziko da, aurreko jarraibideen arabera.

Barra finkoko beso-trakzioaren baremoa (gizonezkoak).

Gizonezkoak	
Errepikapenak	Eraitza
12	2.5
11	2.25
10	2
09	1.75
08	1.5
07	1.25
06	1
05	0.75
04	0.5
03	0.25
< 03	0

Barra finkoko beso-flexio jarraituaren baremoa (emakumezkoak).

Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: izangaia banku batera igo eta barra finko batera helduko da, esku-ahurrak eta hatzak bere buruari begira dituela (begiratu beheko irudia) eta sorbalden zabaleran. Izangaiak besoak erabat tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsa barraren gainetik pasatu arte, ukitu gabe. Oinak bankuarekin kontaktuan egoteari uzten diotenetik aurrera, posizio horretan egon beharko du ahalik eta denbora luzeenean. Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita. Burua, une oro, enborraren luzapenean egongo da. Ezin izango da kokotsa ukitu barrarekin.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketaren tokian eskainiko da).

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Kronometroa martxan jarriko da oinek bankuarekin kontaktua galtzen dutenean. Proba amaituko da kokotsa barra horizontalaren mailatik behera jaisten denean edo listoia eraisten denean.

Barra finkoko beso-flexio jarraituaren baremoa (emakumezkoak).

Emakumezkoak	
Denbora	Emaitza
1'28"9 - 1'23"	2.5
1'22"9 - 1'17"	2.25
1'16"9 - 1'11"	2
1'10"9 - 1'05"	1.75
1'04"9 - 59"	1.5
58"9 - 54"	1.25
53"9 - 49"	1
48"9 - 44"	0.75
43"9 - 39"	0.5
38"9 - 34	0.25
< 34	0

– Abdomeneko ariketa.

Helburua: abdomeneko aurreko eta alboko muskulaturaren indar-erresistentzia.

Probaren deskribapena: Ahoz gora jarrita, hankak elkarrekin; eta eskuak elkarrekin gurutzatuta garondoan eta oinak elkarrekin. Aldaka eta belauna 90 °-ko flexioan. Flexioa egingo da, enborra ezkerretara biratuz, eskuineko ukondoak ezkerreko belauna ukituz, hasierako posiziora itzuliz eta ezkerreko ukondoak eskuineko belauna ukituz. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketa egiteko ezarritako denboran.

Izangaiarentzako jarraibideak:

– Ahoz gora jarri, hankak eta oinak elkarrekin, eta eskuak elkarrekin gurutzatuta garondoan. Aldaka eta belauna 90 °-ko flexioan.

– Flexioa hasi enborra ezkerretara biratuz, eskuineko ukondoak ezkerreko belauna ukituz, eta hasierako posiziora itzuli, garondoak eta ukondoek zorua ukituta. Ondoren, ezkerreko ukondoak eskuineko belauna ukituko du. Ekintza ahalik eta gehien zuzen errepikatu, ezarritako denboran.

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Ariketak irauten duen 30 segundoetan, jarraibideak betez, behar bezala egindako errepikapenen kopurua idatziko da.

Antolaketa: aztertzaileak kontuan hartuko du probarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Hark proba baliozkotzat edo baliogabetzat jotzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: koltxoneta, horma-sarea, kronometroa, errepikapenen kontagailua.

Gizonezkoak	
Errepikapenak	Eraitza
30	2.5
29	2.25
28	2
27	1.75
26	1.5
25	1.25
24	1
23	0.75
22	0.5
21	0.25
< 21	0

– Bankuko iraupen-proba.

Helburua: trizepsaren giharren indar hedatzailearen erresistentzia neurtzea.

Probaren deskribapena: ahoz gora jarrita, hankak elkartuta, orpoak 30 cm-ko garaierako banku suediar batean jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko garaierako beste banku batean jarrita, sorbalden zabaleraren arabera, besoen flexioa egingo da, besoen eta besaurrearen artean 90 °-ko angelua lortu arte. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu behar du, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).

Izangaiarentzako jarraibideak: hankak elkartuta, orpoak 30 cm-ko garaierako banku batean jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko garaierako beste bankuan jarrita, sorbalden zabaleraren arabera, besoen flexioa egingo da, besoen eta besaurrearen artean 90 °-ko angelua lortu arte; - ondoren, egin ukondoaren gehieneko luzapena. Ekintza ahalik eta gehien errepikatu, ariketak irauten duen bitartean, 30 segundo, hain zuzen ere.

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Ariketak irauten duen 30 segundotan, jarraibideak betez, gehiago egin ezin izan arte behar bezala egindako errepikapenen kopurua idatziko da.

Ariketak irauten bitartean ez da onartuko enborra edo aldaka konpentsatzeko mugimendurik.

Antolaketa: aztertzaileak kontuan hartuko du probarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Hark proba baliozkotzat edo balio gabetzat jotzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: banku suediarra eta kutxa, errepikapenen kontagailua, kronometroa.

Gizonezkoak	
Errepikapenak	Eraitza
30	2.5
29 – 28	2.25
27 – 26	2
25 – 24	1.75
23 – 22	1.5
21 – 20	1.25
19 – 18	1
17 – 16	0.75
15 – 14	0.5
13 – 12	0.25
< 12	0

2.– Hegaldi-proba gainditzeko ariketa.

Ariketa honetan 30 puntu emango dira, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira, gai kalifikazioa lortzeko. Ez-gai kalifikazioak hautaketa-prozeduratik kanpo uztea ekarriko du.

Helikopteroz hegan egiteko proba bat izango da, 20 minutukoa, gutxi gorabehera. Izangaiak ariketa batzuk egingo ditu, eta alde zuzenetik azalduko zaizkio. Ariketa baloratzeko, hurrengo taulako itemak ebaluatuko dira, eta horietako bakoitza behar bezala egin beharko da.

Ariketa honekin, hau neurtuko da:

Izendapena	Gai / Ez-gai	Puntuazioa
Hegaldia egiteko gaitasuna, ingurune aeronautikoan.		
Hainbat zeregin aldi berean koordinatzea, hegaldian zehar		
Heligarabirako oinarritzko trebetasuna eta gaitasuna		

12. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 40933 KODEKO LANPOSTUA, ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEKOAK
(MENDIKOAK)

Proba teoriko bat eta praktiko bat egingo dira, nahitaezkoak eta baztertzailak. Izangaiek proba edo ariketaren bat egiten ez badute, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Proba teorikoan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Proba praktikoan gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira, eta gutxienez 20 lortu beharko dira gainditzeko. Puntuazio hori proba osatzen duten ariketetan lortutakoen batura izango da.

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean baino ez dira egingo; horretarako, kirol-ekipo egokia dutela joan beharko dira probak egitera.

PROBA TEORIKOA

Proba teorikoan gehienez 20 puntu lor daitezke, eta gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu behar dira.

Test motako azterketa bat egin beharko da. Bertan, izangaiak honako gai-zerrendako gaietara buruz dituen ezagutza teknikoak baloratuko dira:

- 1.– Progresio bertikaleko teknikak.
- 2.– 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzekoa. IV. titulua, Natura-ondareko gune babestuen (II., III. eta IV. kapituluak).
- 3.– Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak:
 - 2. puntua. Mendia.
 - 3. puntua. Uretan.
 - 12. puntua. Ingurumenaren kutsadura.
 - 13.2 puntua. Meteo. Gorabehera meteorologiko kaltegarriak kudeatzea.
 - 19. puntua. Biktima askoko intzidenteak (IMV).
- 4.– Larrialdiei Aurre Egiteko eta Metereologiako Zuzendaritzaren 005 PE. Eguraldi kaskarreko abisuak. 10. Berrikuspena.
- 5.– Lehen sorospenak. Praktika klinikorako gida laburrak (8. orrialdetik aurrera.)

PROBA PRAKTIKOA

Hainbat ariketa fisiko eta tekniko izango ditu. Gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, guztira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Esleitutako balio guztiak gizonetzat dira; emakumezkoek % 20ko zuzenketa-faktorea izango dute, bai balio horiek handitzeko bai murrizteko, ariketa batzuetan.

Esleitutako balio guztiak gizonetzat dira; emakumeek % 20ko zuzenketa-faktorea izango dute ariketa fisikoan: desnibela + orientazioa, ariketa tekniko bertikalean – espeleologian eta igeriketako 100 metroko ariketan.

Ariketen ordena antolakuntzako eta meteorologiako gaien arabera egingo da.

1.– Nork bere burua sorosteko edo arriskua kudeatzeko teknikak erabiltzea.

Ariketa baztertzaila: 10 puntu.

Sorospen/autosorospen eta/edo arriskuaren kudeaketako kasu bi gauzatzea, Zaintza eta Erreskate Unitateko mendi-kodeetako lanpostuetara sartzeko betekizun gisa eskatzen diren titulazioen gaitasunen garapenean sartzan diren edukiekin zerikusia dutenak.

Kasu bakoitzak 5 puntuko gehieneko baremoa du.

Penalizazio-irizpideak: kasua ez gauzatzea, dela behar den materiala oker edo behar beste ez aukeratzeagatik, dela behar den teknika ez erabiltzeagatik. Bizitzarako ezinbesteko segurtasun-falta dakarren edozein maniobra. Gehieneko denbora gainditzea.

Penalizazio-irizpideak:

- Materialak aukeratzea: ariketa egiteko ezinbestekoa dena ez eramatea.
- Izangaiaren segurtasuna arriskuan jar dezaketen oinarrizko segurtasun-akatsak egitea.
- Denbora: baimendutako gehienekoa gainditzea (ezarritako gehieneko denbora amaitutakoan, ariketa geldituko da).
- Ariketa ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea; betiere adierazitako teknikak zehaztutako segurtasun-baldintzak bete behar dira.
- Ariketa ez amaitzea.
- Kirol-modalitaterako behar den material espezifikoa ez eramatea, edo material horrek ez betetzea ezarritako arauzko segurtasun-baldintzak. Izangaiak ez du ariketa hasteko baimenik izango, eramaten duen materialak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

Aurretik ezarritako penalizazio-irizpideetako bat gutxienez egiteak esan nahi izango du kasuan lorturiko puntuazioa 0 puntukoa izango dela.

Prozesutik kanporatzea ekarriko du alderdi honek:

Ariketa gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira sorospen/autosorospen edo arriskuaren kudeaketako kasu bien puntuazioa batuta.

2.– Ariketa fisikoa: desnibela + orientazioa.

Ariketa baztertzaila: 10 puntu.

Izangaiak 1.500 metroko (gutxi gorabehera) desnibel metatu positiboko ibilbidea egin beharko dute, eta nahitaez kontrol-puntu batzuetatik igaro beharko dute, gizonetakoek gutxienez 10 kg eta emakumeetakoek gutxienez 8 kg dituen motxila bat eramanez. (Ariketaren edozein unetan egiaztatu ahal izango da motxilaren pisua). Inguruaren mapa bat emango zaie, nahi duten ibilbidea aukeratu ahal izan dezaten.

Izangaiak lurraren ezaugarrietarako eta ariketaren eguneko baldintza meteorologikoetarako egokiak diren janzkera eta oinetakoak erabili beharko ditu ariketa egiteko.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Ariketa ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea.
- Ariketa ez amaitzea
- Kontrol-puntu guzti-guztietatik ez igarotzea proposatutako ordenan.
- 3 ordu baino gehiagotan egitea. 40'.

Denbora/puntuen baremoa.

Denbora	Puntuak
2h 30' baino gutxiago	10 puntu
2h 31' - 2h 40'	9,5 puntu
2h 41' - 2h 50'	9 puntu
2h 51' - 3h 00'	8,5 puntu
3h 01' - 3h 10'	8 puntu
3h 11' - 3h 20'	7 puntu
3h 21' - 3h 30'	6 puntu
3h 31' - 3h 40'	5 puntu

Ariketa gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

3.– Ariketa tekniko bertikala – Espeleologia.

Ariketa baztertzaila: 10 puntu.

Izangaiak teknika bertikaleko zirkuitu bat osatu beharko du; bertan dauden zailtasunak gaindituta. Zirkuitua partzialki instalatuta egongo da, eta ariketa hasi aurretik adieraziko zaizkion parametroekin osatu beharko du instalazioa.

Izangai guztiek zirkuitu bera egin beharko dute. Hori guztia eskatutako teknikaz eta segurtasunaz egingo da, ezarritako denboran.

Ariketaren garapena:

Hautagaiak ariketarako esleitutako eremuan batuko dira. Bertan, ariketaren ezaugarrien berri emango zaie izangaiari: zertan datzan, zer denboratan egingo den, zer puntuazio izango dituen, eta ariketatik baztertzeko edo penalizazioa eragiteko arrazoiak. Azalpen horiek beharrezkoak diren guztietan edo izangaiak eskatzen dituzten guztietan emango dira, ariketa hasi aurretik edozein motatako zalantza argitzeko.

Lehenengo izangaiak 5 minutu izango ditu progresio bertikaleko material pertsonala behar bezala jartzeko eta doitzeko. Denbora hori igarotakoan, ariketa hasiko da.

Progresio bertikaleko materiala behar bezala jarri ondoren, izangaiak blokeatzaileak sokan jarriko ditu, eta ariketa hasteko prest dagoela uste duenean hala adieraziko du; igotzen hasten denean, denbora neurtzen hasiko dira.

Gainditu beharreko zailtasunak, gutxienez, honako hauek izango dira:

- Igoerako korapilo-pasabide 1.
- Desbideragailu 1.
- Pendulu 1.
- Eskudel 1.
- Jaitsierako frakzionamendu 1.
- Igoerako frakzionamendu 1.
- Jaitsierako korapilo-pasabide 1.
- Osatu gabe dagoen zirkuituaren zatia instalatzea.

Zirkuitu osoa instalatuta egongo da, izangaiak osatu beharko duen zatia izan ezik, eta horretarako behar den materiala aukeratuko du.

Igotzeko sistema librea izango da. Nahitaezkoa izango da sabelaldeko blokeatzailea eta eskukoa erabiltzea. Eskuko blokeatzaileak arnesaren mailloira lotuta egon beharko du segurtasun-baga edo ainguratze-soka baten bidez, eta pedal bat edo bi izan ditzake.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Ariketa ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea; betiere adierazitako teknikak zehaztutako segurtasun-baldintzak bete behar dira.
- Ariketa ez amaitzea.
- Kirol-modalitaterako behar den material espezifikoa ez eramatea, edo material horrek ez betetzea ezarritako arauko segurtasun-baldintzak. Izangaiak ez du ariketa hasteko baimenik izango, eramaten duen materialak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

Espeleologiako gutxieneko banakako ekipamenduak nahitaez izan beharko ditu homologatutako elementu hauek, CE marka izango dutenak:

- Kasko behar bezala homologatua.
- Pelbiseko arnesa, Delta motako mailloi batekin edo mailloi edo mosketoi erdizirkular batekin itxia, altzairuzkoa edo zikralezkoa edo fabrika-itxitura duena.
- Ainguratze-sokak, bakoitzean dagokion mosketoi eta guzti. Erabilera honetarako berariaz fabrikatutakoak izango dira, dagokien ziurtagiria izango dutenak, edo gutxienez 9 mm-ko soka dinamikokoa izango da, eta korapilo honekin lotuta: bederatzikoa, zortzi bakunakoa, behi-korapiloa edo erdi arrantzale-korapilo bikoitza edo hirukoitza, behar bezala estutua eta soberako soka batekin, segurtasuna bermatzeko.
- Balazta-palanka duen jaisgailua.
- Balazta-mosketoia.

Ariketan segurtasun-falta larria dakarren eta izangaiaren beraren osotasun fisikoa arriskuan jartzen duen edozein maniobra.

Penalizazioa eragingo dute, eta lortutako azken denbora minutu bat luzatuko dute:

- Izangaiak egingo duen instalazioan mosketoiak ez ixtea.
- Korapiloak behar bezala ez egitea eta horrek segurtasun-arazo bat eragitea.
- Adierazitako zirkuituaren zatia behar bezala ez instalatzea.

Denbora/puntuen baremoa.

Denbora	Puntuak
12' 00" edo gutxiago	10 puntu
12' 01" - 12'30"	9,5 puntu
12' 31" - 13' 00"	9 puntu
13' 01" - 13' 30"	8,5 puntu
13' 31" - 14' 00"	8 puntu
14' 01" - 14' 30"	7,5 puntu
14' 31" - 15' 00"	7 puntu
15' 01" - 16' 00"	6,5 puntu
16' 01" - 17' 00"	6 puntu
17' 01" - 18' 30"	5,5 puntu
18' 31" - 20' 00"	5 puntu

Ariketa gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

4.– Eskaladako ariketa teknikoa.

Ariketa baztertzailea: 10 puntu.

Natura-ingurunean eta zehaztu beharreko lekuan, proposatutako eskalada-bideetako bat, gutxienez, egitea, ezarritako zuzenketa-irizpideak gaindituz.

Ariketaren garapena:

Zailtasun (gradu) desberdineko bost eskalada-bide aurkeztuko dira. Izangaiak bi saiakera izango ditu, bere iritziaren arabera antolatuko dituenak, proposatutako eskalada-bideetako bat gutxienez egiteko.

Bi bide gauzatuz gero, izangaiak puntuazio handieneko bideari dagozkion puntuak lortuko ditu.

Ariketa natura-ingurunean egingo da, erresistentzia fisikoko, psikologikoko eta ingurunera egokitzeko trebetasunak bilatzeko.

Bideak hedatzaileez edo tenkagailu kimikoez hornituta egongo dira.

Izangaiak ariketa gaindituko du eskalada-ibilbidea osatutakoan eta proposatutako zailtasunak eskatutako teknikaz eta segurtasunaz konpondutakoan.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Beharrezko materiala ez eramatea edo materialak nahitaezko segurtasun-baldintzak ez betetzea.
- Bere burua sokaz oker lotzea.
- Zailtasunez eskalatzea (etengabeko atsedanak, ainguratze artifizialei heltzea, sokatik zintzilikatzea, urratsak ez kateatzea).
- Tarteko babes-aseguruak behar bezala ez jartzea.
- Ariketan segurtasun-falta larria dakarren edozein maniobra.
- Aukeratutako bideetako bat, gutxienez, ez osatzea.

Proposatutako bideak/Puntuen baremoa

1	V/V+ graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	5 puntu
2	6a graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	6 puntu
3	6b graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	7 puntu
4	6c graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	8 puntu
5	7a graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	10 puntu

5.– Igeriketa ariketa: 100 metro.

Gai edo ez-gai. Ariketa baztertuailea.

Ariketa honek ez ditu puntuak batzen berariazko merezimenduetara.

Deskribapena: Estilo libreko igeriketa, 100 metro. Ibilbidearen hasieran 10 metro apneaz egin behar dira.

Ariketarako gehieneko denbora: 2 m. 30”.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Ariketa ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea.
- Ariketa ez amaitzea.
- Ezarritako denboraren barruan ez egitea.

13. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA, 20219, 20708 ETA 20809 KODEETAKO LANPOSTUAK, AKZ-KOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

1.– AKZ Aginte eta Kontrol Zentroak / LAZLZ Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren testuinguruan.

- Sarrera.
- Ertzaintzaren egitura eta Aginte eta Kontrol Zentroen / LAZLZren antolaketa.
- Xedea eta eginkizunak.

2.– Jardueraren kudeaketa.

- Polizia jarduera. Laneko jardueraren eta metodologiaren sailkapena.
- Zerbitzuak eta prozesuak.
- Lehen mailako prozesu mapa.

– Prozesu estrategikoak.

– Prozesu operatiboak.

– Euskarri prozesuak.

3.– Komunikazioen eta ekipamenduaren azpiegitura.

4.– Informazio sistemak, kudeaketa tresnak eta datu baseak.

5.– Prozedura operatiboak eta jarduteko protokoloak.

6.– Pertsonak: giza faktorea, rolak, zereginak eta eginkizunak, eskumenak, gaitasuna eta erronkak.

7.– Lege esparrua eta aplikatu beharreko araudia.

8.– Ikuspegi estrategikoa eta etengabeko hobekuntza.

9.– Erreferentzia eta iturri ofizialak.

14. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 42002 KODEKO LANPOSTUA, LAGUNTZA TAKTIKOKO BURUTZA
NAGUSIKOAK ETA 43003 KODEKO LANPOSTUA, ERAKUNDEEN SEGURTASUNeko BURUTZA
NAGUSIKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIK

- 1.– 000 jarraibidea: Ertzaintzaren barruko arauen dokumentazioaren kudeaketa eta kontrola.
- 2.– 006 jarraibidea: Ibilgune publikoetan biltzeko eta manifestatzeko eskubideak erabiltzeko babesari buruzkoa.
- 3.– 015 jarraibidea: Ertzaintzaren akreditazio profesionalari buruzko araudia.
- 4.– 017 jarraibidea: Zerbitzu-enpresentzako segurtasun-araudia eta sarrera-kontrolaren prozedurak.
- 5.– 021 jarraibidea: Ertzaintzako kideek suzko armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.
- 6.– 055 jarraibidea: Prebentzio eta Lan Osasuneko Alorraren eskaerari jarraiki Ertzaintzako funtzionarioei armak behin-behinekoz kentzea.
- 7.– 057 jarraibidea: Polizia-zentroetan ezarritako eta kudeatutako segurtasun-ekipoetan jarduteko jarraibideak.
- 8.– 061 jarraibidea: Datu pertsonalak polizia-fitxategietan tratatzea.
- 9.– 062 jarraibidea: Segurtasun-arauak datu pertsonalak babestearen arloan.
- 10.– 067 jarraibidea: Polizia bideozaintzaren kudeaketa.
- 11.– 068 jarraibidea: Dokumentuak Segurtasuneko Sailburuordetzaren artxibo nagusira transferitzea.
- 12.– 070 jarraibidea: Ertzaintzaren irudi korporatiboa.
- 13.– 076 jarraibidea: Barne-iradokizunen kudeaketa.
- 14.– 078 jarraibidea: Ertzaintzaren kudeaketa aurreratuaren eredua.
- 15.– 080 jarraibidea: Ertzaintzaren gobernantza-egitura eta kudeaketa-foroak.
- 16.– 003 zerbitzu-gidalerroa: Arrisku erradiologikoetarako jarduera-protokoloa.
- 17.– 038 zerbitzu-gidalerroa: Mehatxatutako pertsonak babesteko zerbitzuak.
- 18.– 008 zirkularra, Herritarren Segurtasunaren eta Ekintzetarako Baliabideen Alorra: Espetxeratuen zaintza-lanak.

2025eko abenduaren 19a, ostirala

19.– 013 zirkularra, Herritarren Segurtasunaren eta Ekintzetarako Baliabideen Alorra: Segurtasun-koordinazioa kirol-ekitaldietan.

20.– Agindua, 2024ko azaroaren 18koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzen duena.

15. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 30513, 30530, 30540, 30550 ETA 30560 KODEETAKO LANPOSTUAK,
POLIZIA ZIENTIFIKOKO BURUTZAKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzaille bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

- 1.– 003. prozesu-fitxa: auzitegi-prozesua Polizia Zientifikoan.
- 2.– OS 013 Ikerketa kriminalistikoaren arloko jarduerak.
- 3.– OO 007 Azterlan kriminalistikoak egiteko arrastoak hona bidaltzeko sistematika: INTCF, GC, PN.
- 4.– OO 012 Atentatu terroristetan egin beharreko auzitegi-jarduera kriminalistikoa.
- 5.– PO 004 Polizia Zientifikoko Burutzaren (PZB) dokumentazioaren kudeaketa eta kontrola.
- 6.– PO 011 Ekipamenduaren, materialaren eta instalazioen kudeaketa.
- 7.– PO 018 PZk sorturiko txosten polizialak egin, berrikusi, sailkatu eta artxibatzea.
- 8.– PO 028 Akats teknikoen aurrean egin beharrekoak.
- 9.– PO 029 Zaintza katea.
- 10.– PO 031 Kalitatea ziurtatzea PZBn.
- 11.– PO 035 Kexa, erreklamazio eta iradokizunen kudeaketa PZBn.
- 12.– DC 0090 Kriminalistika-eskuliburua.
- 13.– PO 020 Azterketa lofoskopikoaren eta ebidentzien eskaerak kudeatzea LBIko Atalean.
- 14.– PT 064 Ebidentzien tratamendu fisiko-kimikoa LBIko Atalean.
- 15.– PT 065 Ezkutuko aztarnak tindatzea LBIko Atalean.
- 16.– PT 066 Ebidentzien tratamendu kimikoa LBIko Atalean.
- 17.– PT 068 Erreaktiboak prestatzea LBIko Atalean.
- 18.– Armak, munizioak eta ibilbideak.
- 19.– Arma erreglamendua.
- 20.– Oinetakoak aztertzekeo jardunbide egokien eskuliburua.
- 21.– Ezabatutako zenbakiak berreskuratzeko tratamendu-eskuliburua.
- 22.– PAC-ENAC Akreditazio-prozedura.
- 23.– CEA-ENAC-01 ENAC marka erbiltzeko edo akreditatu-izaerari erreferentzia egiteko irizpideak.

- 24.– CGA-ENAC-LEC Entseguak egiteko eta kalibratzeko laborategiak akreditatzeko irizpide orokorrak.
- 25.– G-ENAC-14 Interkonparazioko programetan parte hartzeari buruzko gida.
- 26.– NO-11 Desadostasunak eta erabaki-hartzea.
- 27.– PT 023 Ezaupide fisionomikoen azterketa.
- 28.– PT 026 Atzerritarren eta adingabeen polizia-ezaupideak, PNKri egindako azterketa-eskaera (Atzerritarren Brigada).
- 29.– DC0129 Hatz-markak identifikatzeko metodoa (INTERPOL).
- 30.– PZko lofoskopiaren eskuliburua. (Daktiloskopia-Kiroskopia).
- 31.– PO 021 Euro diru-papera faltsutzeko kasuen tratamendua.
- 32.– PT 085 Euro diru-paperearen benetakotasuna aztertzeke metodologia.
- 33.– ENFHExen BMP-MBP, 4. edizioa, gaztelaniazko bertsioa, 2022ko irailekoa.
- 34.– PRADO glosategia.
- 35.– PT 048 Ofizio judizialak jasotzea, baliozkotzea eta igortzea.
- 36.– PO 016 Txostenak eta ebidentziak jasotzea, baliozkotzea eta igortzea.
- 37.– DC 0147 Gida praktikoa (KAI). Ebidentziak jasotzea.

16. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 70305 ETA 70306 KODEETAKO LANPOSTUAK, IDAZKARITZA
NAGUSIKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

- 1.– 006 jarraibidea: Ibilgune publikoetan biltzeko eta manifestatzeko eskubideak erabiltzeko babesa.
- 2.– 021 jarraibidea: Ertzaintzako kideek su-armak edukitzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten alderdiak.
- 3.– 042 jarraibidea: Banakako kamerak erabiltzea Ertzaintzan – «bodycams».
- 4.– 057 jarraibidea: Polizia-zentroetan ezarritako eta kudeatutako segurtasun-ekipoetan jarduteko jarraibideak.
- 5.– 073 jarraibidea: Armen, munizioaren eta istiluen kontrako gainerako elementuen erabilera eta kontrola arautzea.
- 6.– 76 jarraibidea: Barne-iradokizunen kudeaketa.
- 7.– 96 jarraibidea: Ertzaintzan euskararen erabileraren normalizazioa.
- 8.– 000 zerbitzu-gidalerroa. Ikerketa/inteligentzia, antolaketa eta funtzioak.

17. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 60106 KODEKO LANPOSTUA, BARNE ARAZOETAKO BURUTZAKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

1.– 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateratua onartzen duena (Ertzaintzaren Kontseilua. 10 d) eta 10 i) artikulua).

2.– 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateratua onartzen duena (Kontrol- eta gardentasun-mekanismoak. 13.etik 21.era bitarteko artikulua).

3.– 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateratua onartzen duena (Kode deontologikoa. 22.etik 33.era bitarteko artikulua).

4.– 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateratua onartzen duena (Eskubideak eta betebeharrak, 113. artikulua).

5.– 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateratua onartzen duena (Diziplina-araubidea. 137.etik 146.era bitarteko artikulua).

6.– EAEko Polizia Kidegoen Diziplina Araubideko Araubidea, maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren bidez onartua.

7.– 7/1998 Dekretua, urtarrilaren 7koa, EAEko Polizia Kidegoetako funtzionarioak bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeko buruzko zenbait gai garatzen dituen. Bosgarren xedapen gehigarria.

8.– 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, herri-administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoa.

9.– 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena (178. artikulua).

10.– 146/2022 Dekretua, abenduaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren esparruan polizia-merezimenduagatik dominak, zorionak eta ohorezko gainerako kondekorazioak emateko araubideari buruzkoa.

11.– Agindua, 2024ko azaroaren 18koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura onartzen duena.

12.– 001 jarraibidea, Ertzaintzaren zuzendariarena (Barne Arazoetako Burutza).

13.– 015 jarraibidea, Segurtasuneko sailburuordearena (Ertzaintzaren akreditazio profesionalari buruzko araudia).

14.– 021 jarraibidea, Ertzaintzaren zuzendariarena (Ertzaintzako kideek su-armak edukitzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten alderdiak).

15.– 036 jarraibidea, Ertzaintzaren zuzendariarena (herritarrek Ertzaintzan eginiko kexa eta iradokizunen kudeaketa).

16.– 042 jarraibidea, Ertzaintzaren zuzendariarena (banakako kamerak erabiltzea Ertzaintzan – «bodycams»).

17.– 073 jarraibidea, Segurtasuneko sailburuordearena (armen, munizioaren eta istiluen kontrako gainerako elementuen erabilera eta kontrola arautzea).

18.– 020 zerbitzua-agindua, Ertzaintzaren buruarena (atxiloketaren praktika materiala).

19.– 026 zerbitzu-gidalerroa, Ertzaintzaren buruarena (eginbideen fasea).

20.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (14. artikulua; 29.etik 33.era bitarteko artikulua; 40.etik 46.era bitarteko artikulua; eta 85.etik 89.era bitarteko artikulua).

21.– 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, «Arartekoa» Erakundea sortu eta arautzekoa.

22.– Arartekoaren 7/2011 Gomendio Orokorra, urriaren 28koa, Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzkoa.

18. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 20043 KODEKO LANPOSTUA, KABINETE TEKNIKOKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

1.– 2022/2557 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2022ko abenduaren 14koa, erakunde kritikoen erresilientziari buruzkoa (CER Zuzentaraua).

2.– 2023/2450 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, Batzordearena, 2023ko uztailaren 25koa, 2022/2557 (EB) Zuzentaraua osatzen duena.

3.– 8/2011 Legea, apirilaren 28koa, azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituen.

4.– 704/2011 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, azpiegitura kritikoak babesteko araudia onartzen duena.

5.– 9/1968 Legea, apirilaren 5koa, Sekretu Ofizialei buruzkoa. (Testu bateratua, Sekretu Ofizialei buruzko Legea aldatzen duen urriaren 7ko 48/1978 Legeak egindako alaketarekin).

6.– Informazio Sailkatua Babesteko Agintaritza Nazionalaren arauak (NS/00; NS/01; NS/02; NS/03; NS/04 eta NS/05).

7.– 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.

8.– 203/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko erregelamendua onartzen duena.

9.– CIR 013 – Segurtasuna koordinatzea kirol-ekitaldietan.

10.– 318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (2024ko azaroaren 11ko EHAA).

11.– Agindua, 2024ko azaroaren 18koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura onartzen duena.

19. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 20344, 20444 ETA 20544, LURRALDE IKERKETA KRIMINALEKO ZERBITZUKOAK ETA 30436 KODEKO LANPOSTUA, IKERKETA KRIMINAL ETA POLIZIA JUDIZIALEKO BURUTZAKOA

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzaile bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

- 1.– 020 jarraibide poliziala: Europako atxilotzeko eta entregatzeko agindua.
- 2.– 035 jarraibidea: Lekukoak eta adituak babestea.
- 3.– 037 jarraibide poliziala: atzerriko herrialdeek sortutako SIS seinalamenduak.
- 4.– 38 jarraibide poliziala: SIS/BDSN seinalamenduak (Nazio-mailako eremua).
- 5.– 044 jarraibidea: Ertzaintza eta ingurumenaren aurkako delituak: Jarduteko jarraibideak.
- 6.– 093 jarraibidea: Polizia-ikerketaren eta komunikabideekiko harremanaren arteko jardura.
- 7.– 000 zerbitzu-gidalerroa: Ikerketa eta inteligentzia, antolaketa eta funtzioak.
- 8.– 13 zerbitzu-gidalerroa: Ikerketa kriminalistaren arloko jardura.
- 9.– 19.etik 29.era bitarteko zerbitzu-gidalerroak: Atxiloketa kudeatzeko prozesua.
- 10.– 30 zerbitzu-gidalerroa: Delituaren biktimari laguntzea.
- 11.– Gidalerro operatiboa, abenduaren 1ekoa: Ikerlan irekitzea eta konfiguratzeta.
- 12.– 08 gidalerro operatiboa (Ikerketa Kriminalerako Alorra): BBIIko eta/edo Ertzain-etxeko Lurralde-Taldeek egindako begi-ikuskapearen prozesua kudeatzeta.
- 13.– 14 gidalerro operatiboa (IBN): Komunikazioen interzeptazioa kudeatzeta.
- 14.– 17 zerbitzu-gidalerroa: Justizia-administrazioarekiko solaskidetza eta harremanak.
- 15.– 034 zerbitzu-gidalerroa: Ur kontinentalen isurketak.
- 16.– 37 zerbitzu-gidalerroa: Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituetan jardutea.
- 17.– 048 zerbitzu-gidalerroa: Polizia-jarduna adingabeekin.
- 18.– 053 zerbitzu-gidalerroa: Sarrerak eta erregistroak.
- 19.– 54 zerbitzu-gidalerroa: Ziberkriminalitatearen ikerketa.
- 20.– Zuzenbide prozesaleko alderdiak.
- 21.– Grabazio bideografikoak.
- 22.– Jarraipenerako eta lokalizatorako gailu teknikoak erabiltzea.

23.– Informazioa modu masiboan biltegitzeko gailuen erregistroa.

24.– Sarrera eta erregistroa.

25.– Korrespondentzia gelditzea eta irekitzea.

26.– Begi-ikuskapena.

27.– Argazki bidezko ezagutza eta txandako ezagutza.

28.– Komunikazioen esku-hartzea.

20. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 30603 KODEKO LANPOSTUA, JOKO ETA IKUSKIZUN UNITATEKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

1.– 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena (2019ko otsailaren 21eko EHAA, 37. zk.), eta 119/2019 Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua (2019ko uztailaren 29ko EHAA, 142. zk.).

2.– 183/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, Zezen-ikuskizunei buruzko Araudia onetsi duena (2008ko abenduaren 19ko EHAA, 243. zk.).

3.– 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa (1998ko urriaren 20ko EHAA, 199. zk.).

4.– 8. instrukzio tekniko osagarria: Adituek egindako artifizio piroteknikoak dituzten ikuskizunak. 989/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, piroteknia-gaien eta kartutxoaren araudia onartzen duena (2015eko azaroaren 7ko EAO, 267. zk.).

5.– 120/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokora onesten duena (2016ko irailaren 6ko EHAA, 169. zk.), II. eranskina, Kasino-jokoak izan ezik (140-221 or.).

21. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 70404, 70409 ETA 70410 KODEETAKO LANPOSTUAK, KOORDINAZIO
ETA LANKIDETZA UNITATEKOAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen nahitaezko proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK

- 1.– 00 zerbitzu-gidalerroa. Ikerketa/inteligentzia, antolaketa eta funtzioak.
- 2.– 17 zerbitzu-gidalerroa: Justizia-administrazioarekiko solaskidetza eta harremanak.
- 3.– 01 gidalerro operatiboa (Ikerketa Kriminaleko Alorra): Ikerlan irekitzea eta konfiguratzeko.
- 4.– 3 gidalerro operatiboa: Eginbideak izapidetzeko, gainbegiratzeko eta bideratzeko eskumena.
- 5.– 077 jarraibidea: Ertzaintzak gorroto-delituen aurrean jarduteko prozedura (1., 2. eta 3. eranskinekin, eta FM 0452rekin).
- 6.– 094 jarraibidea. Delituen eta gorroto-gertakarien talde egonkorra.
- 7.– 037 jarraibidea: Atzerriko herrialdeek sortutako SIS seinalamenduak.
- 8.– 038 jarraibidea: SIS/BDSN seinalamenduak (Nazio-mailako eremua).
- 9.– 071 jarraibidea: Ertzaintzaren eta beste estatu kide batzuen arteko informazio eta inteligentzia trukea (Suediako ekimena).
- 10.– 010 zerbitzu-gidalerroa: Abisuak jasotzean jarduteko koordinazio operatiboa, seinalamenduen/errekisitorien kategorien arabera.
- 11.– 020 jarraibidea: Europako atxilotzeko eta entregatzeko agindua.